aipatzen den Alfontso VIII.aren garaira eramango gintuzke. Horren arabera, 1209 aldean Oiartzunek eta Donostiak petxu, zerga eta zamen ordainketei buruzko akordio bat sinatu zuten⁷. Trukean, eta 1237ko agirian esaten direnak aintzat hartuz, Donostiak Oiartzuni babesa emango zion⁸.

Aitortu behar da halako hitzarmen bat horren garai goiztiarretan izateak nahiko susmo txarra duela, garai horretarako ez baitugu halakoen berririk. Ohikoena XIV. mendean zehar ikustea da, bereziki testuingurua korapilatzen eta ezegonkortzen joan zen heinean. Bestalde, oiartzuarrak Donostiako “auzo” moduan ikustek ere zehaztapen bat beharko luke. Kontzeptu horren atzetik ez dugu Tolosa, Ordizia eta Segurako kasuetan horren agerikoa den menpekotasun juridikzional bat ikusi behar. Hiribilduen artean sinatu ziren “auzotze hitzarmen” horien atzetik elkarkidetzara edo bizikidetzarako akordioak zeuden, gai jakin batzuk arautzeko egindakoak⁹. Oiartzun eta Donostiaren kasuan antzeko zerbait gertatu zelakoan gaude, bakoitzak bere udal-gobernu eta ondasunak zituelarik, baita esparru horien kudeaketa. Horren lekuko genuke 1316 urtean Oiartzungo udalbatzak egindako salmenta gutuna.

histórica de Rentería. Donostia: Nueva Editorial, 1930, 93-102 or.) oso ikertzaile gutxi erabili baiute. Dokumenturako, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397)*. Donostia: GFA-GBBNN, 1996, 503 dok. Aipamen zehatzik ezean, epaiaren inguruan adierazitakok hortik aterako ditugu.

6 Hala, auzi berean Errenteriak ematen dituen hitzak hartu besterik ez dugu: *“que la dicha tierra d’Oiarzon pechara siempre en todos los pechos con la dicha Villanueva y que en tal posesión estaba la dicha Villanueva de diez y de veinte y de treinta y de sesenta años y de setenta años y de tanto tiempo...”* (ibidem, 272 or.). Epaiari urte epe horietatik luzeena kentzen badiogu, 1319 urtea ematen digu, hau da, 1320ko hiri-gutuna eman zen garaian kokatuko genuke, testuan defendatutakoarekin bat datorrena.

7 Beste datu batzuek, berriz, lurren ustiaketa komuna arautzen zuen hitzarmenaz dihardute, bereziki eremu hutsa zirenen inguruan, baina Alfontsoaren ordean, Fernando III.ak baieztatuko zuena. Honen inguruan beherago jardungo dugu.

8 Agian, betebeharen artean ere nolabaiteko ordezkari jarbuna zegoen, hau da, hainbat kontutan hiribildua Bailararen izenean arituko zela. Horrek Munitaren hipotesietako bat indartuko luke, gaskoi kutsuko “Uharçen” aldaera 1237an agertzea; Oiartzunen izenean gaskoi-donostiar bat aritu zela pentsa daiteke (ald. MUNITA LOINAZ, J. A., aip. lan., 92-93 or.). XIII. hasieratik ematen den bi udalbatzen arteko harreman administratiboek ere ziurrenik eragina izango zuten erabilitako hizkuntzan, 1316ko salmenta batean Oiartzunek gaskoia erabiltzearen adibidea horren lekuko genuke. Berriki esan dugun moduan, horrek ez du esanahi Oiartzualdean populazio gaskoi sendo bat zegoenik, hizkuntza horrek administrazioan zuen erabilera baizik. Arrazoi nagusia Baionan jarri dugu, Oiartzun bertako elizbarrutian sartuta baitzegoen, baina horrez gain, Donostia eta Hondarribiko ohiturak ere aintzat hartu beharko lirarteke. Soledad Tenak, bere aldetik, gaskoiek inguruko leinu garrantzitsuenetan izandako eraginaz hitz egin du. Ikus TENA GARCÍA, M.ª S., aip. lan., 430 or.

9 Horren lekuko, Hernanik eta Donostiak 1379an, Getariak eta Zarautzek 1393an edota Getariak eta Zestoak 1394an burututakoak ditugu. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*..., aip. lan., 384, 546, 547, 572 eta 573 dok.: Gamónen berak ere hori aipatzen zuen (GAMÓN, J. I., aip. lan., 99 or.). Oiartzun eta Donostiari dagokionez, Joan I.aren epaiak argi uzten duenez, bat-etortze hitzarmenak Bailararen autonomia bermatuko zukeen: oiartzuarrek ez zuten Donostiara joan behar hiribildua gauze zaintzera, ezta harresiaren lanetan parte hartu ere, eta Bailarak bere probestua, hamabia eta alkateak izango lituzke. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*..., aip. lan., 275 or.

Halaber, susmagarria gerta dakiguke ez Alfontso VIII. aren dokumentuak, ez 1237koak XIII. mende guztian zehar inolako berrespenik ez izatea, egun kontserbatzen ditugun agiriak aintzat hartzen baditugu, bederen¹⁰. Hori azaltzeko, 1318ra arte inolako beharrik ez izatea legoke. Ordura arte bizitako egoerak ez zuen gorabehera handirik izan eta Donostiarekin XIII. mende hasieran adostutakoa berritzearekin nahikoa izango zuen, eta arazorik egotekotan, Donostiarekin berarekin batzarrak ospatzea zatekeen ohikoena.

Baina dokumentazioa sakonago aztertzen badugu, gauzak bestelakoak dira. Izan ere, 1318an egindako berrespenean aurreko erregeek egindakoak aipatzen dira, Fernando III.aren hiri-gutunaz gaindi, Alfontso X.ak, Antso IV.ak eta Fernando IV.ak burututakoak. Beste horrenbeste diote 1320an eta 1340an emandakoek, baina 1318an ez bezala, azken bi data horietan testuen kopia eskuetsiak erregearen aurrean aurkeztu ziren, Hondarribiko Per Arnalt Gardagak burututakoak, lehenago aipamen hutsak zirenak errealitate fisiko bihurtuz. Horrek esan nahi du 1251 eta 1312 urte bitartean 1237ko agiriak hiru berrespen izan zituela¹¹. Noiz lortu zituen ez dakigu: agian erregeak Gipuzkoatik gertu edo Gipuzkoan bertan zeudela edo, akaso, beste hiribilduetako ordezkariak Gortera joan behar zutela aprobetxatu¹².

Alta, zenbait lorratzek Alfontso VIII.aren garaian “auzotartze” edo elkarkidetzak-hitzarmen bat egin zela aditzera eman diezagukete. Batetik, aipatutako 1389ko epaiak gain, Erreteriararen alde eman zen 1396koa dago. Azken honetan Bailarak Erreteriarekin zuen menpekotasuna berresten bazen ere, 1320an hiribildua sortu aurretik Donostiarekin zituen betebeharrak fiskalak bere horretan mantendu zituen¹³.

Bestetik, Oiartzun eta Donostiaren arteko harreman hori 1209 aldera egin zenaren arrasto batek Getariara garamatza. Ikusi dugunez, 1237an bi komunitateetako ordezkariak, Mutrikurekin batera, ia egun berean beraien usadio eta pribilegioen berrespenean lortu zuten. Bada Getariak ere beste horrenbeste lortu zuen 1209ko irailean eta, halaber, historiografiaren ildo batek Mutrikuren hiri-gutuna urte berean egin zela babestu du. Ondorioz, ez litzateke batere harrizkoa izango Alfontso VIII.aren aurrean hirurak ere azaldu izana, zer esanik ez une horretan erregea Donostian zegoela aintzat hartuta. Gainera, badakigu Donostiak eta Oiartzunek sinatutako akordioaren arteko bat, hiribilduak erdietsitako eta Bailarak zerabiltzan pribilegioen kopia eskuetsiak lortzearen inguruan zetzala. Zehazki, Oiartzunek foruaren agiriak behar edo nahi bazuen, Donostiak horren kopia eskuetsia eman behar zion. Klausula honek ere Getariarekin lotzen gaitu, hiribildu honek behin baino gehiagotan jo baitzuen Donostiara foruaren kopia eskuetsiak lortze aldera¹⁴.

10 Izan ere, bere garaian dokumentazio gehiago gordetzen zen. Hondarribiak berak, Fernando III. arengandik hiri-gutunaren berrespene lortu zuela ematen du, beheago ikusiko dugun moduan. Honen inguruan, Oiartzun eta Erreteriarako adibideak ere aintzat hartuz, CALLEJA PUERTA, M.: “Los privilegios fundacionales de las villas marítimas del Cantábrico: una perspectiva diplomática”. In: ARÍZAGA BOLUMBURU, B.; eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A. (arg.): *Ciudades y villas portuarias del Atlántico en la Edad Media. Nájera, Encuentros Internacionales del Medioevo, Nájera 27-30 de julio de 2004*. Logroño: Gobierno de La Rioja-IER, 2005, 153-156 or. (147-164).

Baliteke berrespen eskas hau 1237koaren egiazkotasunaren inguruan nolabaiteko zalantzak sortzea. Honen inguruan, ikus ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); ACHÓN INSAUSTI, J. A. (koord.): *Guipúzcoa y el reino de Navarra en los siglos XIII-XV: relaciones, intereses y delimitación de la frontera*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1988, 60-61 or.; eta LEKUONA, M.: *Del Oyarzun Antiguo (monografía histórica)*. Gasteiz: Gráficas ESTE-Seminario Vitoria, [1978], 46-49 or.

11 este galdera bat litzateke Donostiako Foruaren berrespenari buruz ari denean, 1237ko dokumentua ala Foru hori esplizituki luzatzen zuen beste agiri bat ulertu behar izatea. Alabaina, ideia hori 1237ko idatziaren ondotik garatuko zela uste dugu. Ikus CALLEJA PUERTA, M., aip. lan., 156-157 eta 162-163 or.; eta GAMÓN, J. I., aip. lan., 99-100 or.

12 Hala, Alfontso X.a 1256an eta 1270ean Gasteizen eta 1280an Donostian izan zen eta Santxo IV.a, berriz, Donostian eta Gasteizen 1290eko martxo eta apirila bitartean. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.;

GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*..., aip. lan.

13 MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*..., aip. lan., 414 or. Dena den, bietan Erreteriarak ez zuen jarrera berdina mantendu. Lehenengoan hitzarmenaren iraungitzearen aldeko apustua egiten bazuen, urte gutxiren buruan taktikaz aldatu zuen, ziurrenik 1389 epaiak ekarri zuen kolpearen ondotik. Egoera berriari moldatu beharra zegoen eta, diskurtsoa aldatuz, ez zituen Donostia eta Oiartzunen arteko hitzarmenak ezbaian jartzen, aitzitik, hitzarmen horiek eta bailarak Erreteriarekin zuen menpekotasunak kontraesanik gabekoak zirela uste zuten. Halaber, Oiartzunek hainbat zerga, sari, petxu edo taldekida Donostiari ordaintzeak ez zuen esan nahi Hiriberririkiko obligaziorik ez zegoenik; bi gauza ezberdin ziren. Azken finean, Oreretak bere behar, eskumen eta gailentasun administratiboari eutsi nahi zion: Bailarak hiribilduaren gauzaintzan parte har zezala, harresiak eta babes-hobiak egin eta konpontzeko lanetan ari zedila, salerosketak hiribilduan burutu zitzala eta, azkenik, justiziaren ikuspegitik, Hiriberriko alkate eta probestuaren menpe egon zedila. Oiartzuarrak, Erreteriarekin zituzten betebeharrak gordetzeaz gain, Donostiari zenbait kontu ordaintzera behartuak bazeuden, oreretarrei ez zien axola handirik, beti ere beraietikoa betez gero. Ikus, ibidem, 412 eta 413 or.

14 MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*..., aip. lan., 276 or. Getariarek Donostiako Foruaren kopia eskuetsiak lortzeko egin zituzten eskaerarako, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ,

Laburbilduz, ideia nagusia honakoa litzateke: 1209 urte aldera Donostiak eta Oiartzunek hitzarmen bat sinatu zuten eta data horren inguruan Alfontso VIII.ak berretsi zuen. Gerora, 1237an, akordioaren mamia beste agiri batean bilduko zen, aurretik emandakoak zuen indarra baliogabetuz. Hori dela eta, azken dokumentu hori izango da gerora berretsiko dena: hiru aldiz 1252 eta 1312 artean, eta beste behin 1318an.

Bailararen eta Donostiaren hitzarmena gauzatzeko arrazoiari erreparatuz gero, Hondarribiaren sorreraren ondotik uler daitekeela uste dugu, hainbat egilek adierazi diguten moduan¹⁵. Hondarribiaren sorrerak eskualdeko zenbait lurren jabetza eta ustiaketa moduetan eraldaketak ekarriko zituen, besteak beste, lehen herri-lurrak zirenak Hondarribiaren udal-lur bihurtuz. Honen aurrean Bailarak eta Donostiak elkarren arteko hitzarmen bat adostuko zuten, alde aurretiko ustiaketa mantendu nahian. Ez da aiantzi behar Donostiako Foruan, hiribilduari esparru jakin batean zeuden errege-lurrak ematez gain, haietan zeuden larre eta urei lotutako eskubideak ere ematen zitzaizkiola, "inguruko lurretan bizi zirenek zituztenen antzera" ustiatzeko¹⁶. Honela, baliabide horien gozamen eta ustiapena bermatzearen truke, Oiartzunek Donostiari nolabaiteko ekarpena egingo lioke, zerbitzutan edo dirutan. Hurrengo pausoa hitzarmen horren errege-berrespena lortzea litzateke, eta hori izan zen, hain zuzen ere, Alfontso VIII.ak hil baino hainbat urte lehenago eta bere ondoren Fernando III.ak egin zutena. Azken errege honen kasuan behintzat, badakigu Oiartzunek eta Donostiak gutun-zatitu bat berretsi zuela, eremu hutsa ziren lurrak bi aldeen gozamenerako gelditi zitezen¹⁷.

Hondarribiaren ildo horri jarraituta XIV. mende amaierako beste epai batera iritsiko gara, Gonzalo Morok 1397 inguruan eman eta 1399ko martxoan Gaztelako Endrike III.ak berretsitakora, hain zuzen ere¹⁸. Oraingoan, gatazka ordura arte protagonismo gutxi izan zuen hiribildu baten salaketek piztu zuten, Hondarribiarenak, alegia, bereziki baso eta larreen ustiaketaren inguruan sortutako arazoak mahaigaineratuz. Auzi honetan XIII. mende hasierako dinamika ulertzeko lortzak aurkitzen ditugu eta 1389koan bezala, hemen ere prozesuan zehar aurkeztutako dokumentuak aipatzen dira. Hala, Hondarribiak bere hiri-gutuna, Fernando III.aren berrespena (egun desagertua dagoena) eta askoz interesgarriagoak diren beste bi eman zituen ezagutzera: bata, Fernando III.ak berak emandakoa; bestea, aldiz, haren aitona Alfontso VIII.ak.

Azpimarratu behar dugun lehenengo gauza Hondarribiaren beraren hiri-gutuna da, Donostiako Forua ematez gain, beste ohar aipagarri batzuk biltzen baitzituen. Batetik, erregeak Asturiagako portua ematen zion, urtean errenta bat ordaintzaren truke; bigarrenik, bidesaririk salbuesten zituen; azkenik, eta gure ildoari bereziki interesatzen zaiona, kanpotarrei beraien aziendak Hondarribiko lurretara bazkatzea eramatea debekatzen zitzaien, bai behintzat, Hondarribiaren baimenik izan gabe. Azken honen gaia eta orain arte Oiartzun eta Donostiaren arteko hitzarmenen eta 1237ko agiriaren ondotik esan ditugunak aintzat hartuz, guztien arteko lotura agerikoa dela ematen du¹⁹.

Hiri-gutunaz gain, lortatz horri heltzen zion dokumentu gehiagorik ba omen zuen Hondarribiak, eta 1396an Gonzalo Mororen aurrean aurkeztu zituen. Alde batetik, Hondarribiak eta Donostiak Fernando III.aren aurrean

E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)...*, aip. lan., 169 eta 222 dok.

- 15 Ikus, bereziki, GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A.: "Una villa mercantil: 1180-1516". In: ARTOLA, M. (ag.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia-Hondarribia: Nerea-Donostiako Udala, 2000, 11-86 or., bereziki 27-28 orrialdeetan egindako hausnarketa garrantzitsuak. Ald. ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); ACHÓN INSAUSTI, J. A. (koord.), aip. lan., 27 or.
- 16 GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A., aip. lan., 24 or. Dena den, ez da ahaztu behar Donostiako Foruaren iturri ziren Jaka eta Lizarrakoetan eguzkitik eguzkira arteko abeltzaintzaren ingurukoak ere arautu zirela. Ikus, ARAGON RUANO, A.: *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*. Bilbao: EHU-UPV, 2009, bereziki 38-40 or.
- 17 Gutun-zatitu hau 1389ko epaia gauzatu zuen prozesuan Donostiak aurkeztu zuen: "...una carta que fue partida por A, B, C, sellada con un sello de plomo, por la qual parecía que los de la dicha villa de San Sabastián y los de la tierra d'Oiarzun ficsen abenencia en presencia del rey don Fernando **en lo que era yermo que fuese de común de amas las villas** [sic] y que los de Oyarzo, que vibiesen por el fuero de San Sabastián y que ficsen vecindad con ellos en todas cosas salvo que non les ayudasen a belar la villa nin a cercarla, y que los de

Oiarzun, que obiesen preboste y jurado y alcalde así como mandaba el fuero de San Sabastián, y del juicio del alcalde que se alzase a San Sabastián; la qual carta fue otorgada y confirmada y mandó que valiese por siempre" (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)...*, aip. lan., 275 or. Dena den, ohartu beharko genuke horren berrespena Fernando III.ari egozten zaiola eta ez, ordea, Alfontso VIII.ari.

- 18 NOAIN MAURA, M.^a J., aip. lan., 421-439 or.; CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo I (1237-1470)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991, 25 dok., erregearen datazioan 1397 urtea jarritz.
- 19 J. A. GARCÍA DE CORTÁZARrek ondo adierazi bezala (aip. lan.). Foruaren inguruan, ald. NOAIN MAURA, M.^a J., aip. lan., 71 eta h.

bat-etortze hitzarmena zegoen, larre eta mendietan aziendak eguzkitik eguzkira bazkatzearen eta zuhaitz-mozketen inguruko eztabaidak konpondu nahian. Ordurako bi hiribilduen garapena agerikoa omen zen, egurraren beharra nabarmen areagotuz, bai etxeak altxatzeko, upelak eta bestelako gauzak egiteko eta ontzigintzarako. Fernando erregeak, bi aldeei, zituzten mendi horietan gozamen askea eman zien, batek gauza baterako behar zuenean besteak beste horrenbeste egin zezan. Horrez gain, bestelako neurri bat jartzen zuten: mozketak eta bazkatzeak “bere aita” [sic] Alfontsoaren agirian esandakoaren arabera arautu zitezela²⁰.

Epaian egiten den dokumentu horien deskribapena nahiko zurruna da eta argitzeak lanak ematen ditu. Hondarribiko Foruak horrelako xedapen argia duela aintzat hartuz gero, Fernando III.ak bere aitoren gutun bati aipamena egiteak hainbat hipotesi mahaigaineratzen ditu. Batetik, Hondarribiko hiri-gutunean bazkatzearen inguruan agertzen den neurria alde aurretik gertatzen ari zen prozesu baten ondotik ulertu beharko genuke, hots, Alfontso VIII.aren gutuna, Donostia eta Hondarribiaren arteko gatazka konpontzeko asmoz emandakoa, Bidasoako herriari hiri-gutuna eman baino lehenagokoa izatea, adostutakoaren laburpen bat 1203 hiri-gutunean sartuz²¹.

Bigarren hipotesiak, berriz, Alfontsoaren aurrean egin-dako adostasun-hitzarmen hori hiri-gutunak ezarritako mugen eta honen ondotik sortutako eztabaiden ondorioz burutua izatea ekarriko luke. Ondorioz, lehenengo hipotesiak 1203 urtea baino lehenago datatua dagoen hitzarmen bat babestuko zukeen moduan, oraingoteoriak 1203-1214 epean burutu zela adieraziko luke. XIV. mende amaierako epaiak modu korapilotsuan adierazitakoaren arabera, Alfontso VIII.ak honako agindua eman zuen Hondarribiko barruti eta lurren inguruan: “*que fuessen por el río de Oyarçun, que es entre San Sebastián y Villoga [sic], porque entendía que fuera voluntad del dicho rey don Alfonso, que poblara a Fuenterrabía en cabo del reyno, (...) de darle el mayor término que pudiese segund*

entendiere que había menester”. Honen arabera, hiri-gutunean adierazitako barrutia ez zen nahikoa izan eta hori konpondu nahian, bi hiribilduek komunean zituzten beste zenbait lur Hondarribiari egokitu zitzaizkion. Hala, Hondarribiari hiri-gutuna eman eta gutxira, eta ziurrenik Oartzun eta Donostiaren arteko akordioa baino lehen, mendien mozketa eta bazkatzearen ingurukoak argitzen zituen agiri bat egin zen, gerora Fernando III.ak eta Santxo IV.ak, azken honek beste epai baten bidez, berretsi zutena²².

Ustiaketa komuna zuten lur horiek non zeuden ez dakigu. XIV. mende amaierako prozesuan aritu ziren hainbat lekukok Donostiak eta Hondarribiak herri-mendi moduan zituztenak Jaizkibelgoak zirela aipatzen zuten, eta ez Donostiak zioen tokian²³. Azken hiribildu honen argudioek ziurrenik bere Foruan muga moduan aipatzen zen Arrenga toponimoari jarraituko liokete. Horren arabera, leku-izen hori Gipuzkoa eta Nafarroa banatzen dituen Errenga mendiarekin lotuko litzateke, hau da, Oartzunen abeltzaintza-interesak erakarriko zituen gune batera eta XIII. mendearen azken hamarkadetan sarobeen sorrera ikusiko zuena²⁴. Horrek, aditzera eman dugun bigarren hipotesiari leku egingo lioke. Modu honetan, Hondarribiko hiri-gutunak zekartzan aldaketen aurrean, bi adostasun-hitzarmen egin ziren: batetik Donostiaren eta Hondarribiaren artekoa eta, bestetik, Bailarak eta Donostiak egindakoa, biak 1209 urte aldera. Alfontso VIII.ari halakoak berrestea komenigarri egingo zitzaion, berriki eskuratutako lurralde batean bere interesak areagotzeko, ezin baitugu ahaztu 1200eko gertakariak oso hurbil zeudela²⁵.

Alfontso eta Fernandoren garaietan gertatu ziren tentsio eta hitzarmen hauen guztien aurrean, ondorengo

20 Jarduera hauek beti hartu izan dira XIV. mendeko isla bezala, baina epaiak argi eta garbi lotzen dizkio Fernando III.aren ustezko dokumentu horri. NOAIN MAURA, M.^a J., aip. lan., 420-438 or. Orain esango ditugunentzat, ibidem, 423-424 or.

21 Asturiaga ematea ere ildo beretik sartzen zuten: hau da erregeak, hasieran pentsatzen zuena baino eremu handiagoa eman zela, zuhaitz mozketak eta erreketak ez egitearen ordainetan. Ibidem, 431 or.

22 “*E otrosí presentó otra carta del rey don Sancho, de confirmación de la dicha carta [hiri-gutuna]. E otrosí, carta de sentençia en que mandó [Santxo IV.ak?] que la dicha avenençia fuesse guardada a esso mismo la declaración de los términos del dicho rey don Alfonso. E por quanto fallaba que los de San Sebastián pasaran contra las dichas cartas, condenolos en las costas e en los dannos...*”.

Bestalde, hirugarren hipotesiak aurreko guztia 1396-1399ko auziaren baitan sortutako kontakizun edo diskurtso baten baitan sartuko luke; hau da, propio ingurumari horretan sortutakoa, hiri-gutunean eta bere berrespenetan oinarrituz. Baztergarria ez bada ere, datuen arteko loturak aurreko bi hipotesiek hirugarren hau baino indar askoz handiagoa ematen diola deritzogu.

23 NOAIN MAURA, M.^a J., aip. lan., 430 eta 432 or.

24 IRIXOA CORTÉS, I., aip. lan., 102 or.

25 Eta gerora ere, Alfontso beraren 1207ko testamentuan, edota 1234 eta 1256an, Gipuzkoa bernafartzeko asmoa izan zen.

hamarkadetako egoerak nolabaiteko lasaitasuna ezagutu zuen. Bi hiribilduen eta Bailararen jarduera ekonomiko nagusiek nolabaiteko bateragarritasuna zutela pentsa daiteke edo, behintzat, ez zutela larreen inguruan arazo handirik sortu. Agian, Hondarriak oiartzuarrak eguzkitik eguzkira bazkatzen utziko zituen, baimena ematearen ordainetan sariren bat lortuz. Oiartzunek abeltzaintza eta nekazaritza jarduerak bultzatuko zituen eta aipatutako bi hiribilduek, lurraren ustiapenari baino gehiago, itsasoari lotutako merkataritzan eta garraioan jarriko zuten beraien begirada.

Gizaldi horren ezaugarri izandako hazkunde ekonomikoak, bake giroak eta merkataria-jardueren garapenak bideragarri egin zuten egoera lasai hori²⁶. Merkatarik gaztelarrek Arroxela ohiko helmuga izan zuten 1224rako, Ingalaterra eta Flandriara bidean zihoazela. Donostiarrak urte gutxiren buruan izango ditugu Ingalaterran: 1228an, adibidez, hango ontzi bat Sandwich-en lapurtu eta Hull-era eraman zen²⁷. Oiartzuni foruak eta usadioak berretsi zitzaizkion urtean, berriz, Ingalaterrako Endrike III.ak bost urteko igarotze-baimena eman zien donostiarrei, berme osoz merkataritzan aritzeko; helburua donostiarren eta Ingalaterrako hego mendebaldean zeuden Bost Portuak edo *Cinque Ports* izenekoen arteko liskarrei amaiera ematea zen. Halaber, Sevillaren konkista, 1248an jazotakoa eta donostiarren partaidetza esanguratsu eta esker oneko bat izango zuena, benetako pagotxa suertatu zen merkataritzarako, Mediterraneo eta Atlantikoa uztartzeko giltzarri nagusia izan baitzen. Bestalde, Alfontso X.ak burututako "Partidak" izeneko lanean (1256-1265), pleitamendu hitzarmenez hitz egiten

26 TENA GARCÍA, M.ª S., aip. lan., 240 or. Orain esango dugunerako, CHILDS, W. R.: "Commercial relations between the Basque Provinces and England in the Later Middle Ages, c. 1200-c. 1500". In: *Itsas Memoria*, 4 (2003), 55-64 or.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: "Geografías mercantiles vascas en la Edad Moderna (III). Las relaciones vascas con Inglaterra: siglos XIV-XVI". In: *Lurralde*, 28 (2005), 85-152 or.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: "Geografías mercantiles vascas en la Edad Moderna (IV). Las relaciones mercantiles y marítimas de los vascos con el ducado de Bretaña durante los siglos XIII-XV". In: *Lurralde*, 29 (2006), 215-297 or.; ORTEGA VILLOSLADA, A.: *El reino de Mallorca y el mundo atlántico (1230-1349). Evolución político-mercantil*. Madril: UNED, 2008; RUIZ, T. F.: "Mercaderes castellanos en Inglaterra, 1284-1350". In: *Anuario del Instituto de Estudios Marítimos Juan de la Cosa*, 1 (1977), 11-38 or.; eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: "Integración económica, competencia y jerarquización de los puertos atlánticos del norte de España (siglos XIII-XV)". In: *AME*, 48 (2018), 213-242 or.

27 "navem de Sancto Sebastiano, que in portu Sandwic depredata fuit et ducta usque in portum de Hul" (*Patent Rolls of the reign of Henry III preserved in the Public Record Office*. A. D. 1225-1232. Londres: H. C. Maxwell Lyte, 188 or.).



zen. Adibide gisa Sevillatik Arroxelarako bidaia hartzen zen, Lisboa, A Coruña, Ribadeo edo Santanderren geldialdiak aurreikusiz. Azkenik, 1268ko Xerezko Corteek merkataritza-sarearen inguruan xedatutako antolakuntzak, irudi esanguratsua eskaintzen digu. Hala, Hondarribia eta Santander arteko eremuan, eta Bizkaiko herririk hartzen ez zuen zerrendan, Euskal Herriko aduanak bi besterik ez ziren, Hondarribia eta Donostia; bertako toki gehienak Galiziari lotuak zeuden. Aipamen eskas horrek Gaztelako erregeentzako euskal kostaldeak leku apala zuten seinale izan daiteke, baina hori hala balitz ere, ordurako bertako burdinolak interesa pizten ari ziren²⁸.

Gaztelarentzako zuen garrantzi apalaren aurrean, Nafarroarekiko harremanek merkataritza-jarduna nabarmen sustatu zuten. Hasteko, 1245ean Hondarriak, hainbat baldintzapean nafarrak babespean hartzeko konpromisoa hartzen bazuen, urte gutxiren buruan

28 Hala, 1257an, Santillanako Asturiastik Hondarribira arteko burdinolen gaineko errege-sariak Santanderko bi merkatarik errentan hartu zituzten. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A., aip. lan., 221 or.



▲
Kapitanenea 6 zenbakian topatutako
labea. Argazkia: Juxe.

merkataritzari buruzko kontuak argi eta garbi azaltzen zaizkigu. Urdazubin 1249an emandako idatzi batean, Tibalt erregeak Lizarrako auzoen merkataritza-jarduna nolabait arautzen zuen, bidesariak non ordainduko zituzten ezarri; Donostiara eta Baionara joatean edo bertatik itzultzean ezarritako bidesariak, hain zuzen ere²⁹.

29 ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); ACHÓN INSAUSTI, J. A. (koord.), aip. lan., 53-55 or. 1245 eta 1249ko agiriatarako, ikus, hurrenez hurren, MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*..., aip. lan., 13 dok. eta RAMÍREZ VAQUERO, E. (zuz.): *Corpus documental para la historia del reino de Navarra, códigos y cartularios. Tomo III: El Cartulario Magno del Archivo Real y General de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 2016, 179 dok. Ezin da ahaztu, halaber, Ingalaterrako erregistroetan merkatarí nafarrak 1217an ikus daitezkeela, "Reymundus de Perille, mercator de Navare", kasu (*Calendar of the Patent Rolls preserved in the Public Record Office. Henry III. A D. 1216-1225*. Londres: Mackie and Co., 1901, 84 or.)

Hegoaldeko euskal kostaldeak XIII. mendearen erdialdean izan zezakeen oihartzun apala Gutun Pizarra deritzon kartulario edo mapan ikus dezakegu: 1275-1290 aldean egindakoa, Donostia bakarrik islatzen du, bere ekialdera Castro kokatuz eta mendebaldera, berriz, Baiona. Azken hau zen, zalantzarik gabe, itsas merkataritza zentralizatzen zuen gunea, eta donostiarren eta hondarribiarren elitearen gehiena bertatik zetorrela aintzat hartuta, bertako dinamikak hona ere ekarriko zituzten. Alabaina, urak erreten berriak hartzen hasiak ziren.

Aldaketei ateak zabalduz

Merkataritzaren garapena agerikoa izan zen ordutik aurrera. Iruindarrek 1281ean Gaztelako erresumatik igarotzeko baimena lortu zuten, beti ere ateratzea debekatuak zeuden gaiak esportatu gabe. Bost urte geroago, 1286ko abenduan Antso IV.ak emandako aginduan, informazioa askoz zehatzagoa da. Hasteko, martxant nafarrek eskatuta egiten zen, ez soilik iruindarrek, merkataritza interesak erresumako lau aldeetara hedatu ziren seinale. Bigarrenik, agiria emateko arrazoia dugu, Flandriarako ziren salgaiak eta bestelako gauzak Baionan zamatzeak zekartzan eragozpen handietan oinarritzen baitzen. Berri hau, zalantzarik gabe, Nafarroaren nazioarteko merkataritza-jardueraren ispilu bikaina da, Europa iparraldera esportatzeko Euskal Herriko porturik garrantzitsuena erabiliz. Hirugarren informazio azpimarragarria kalte horiek saihesteko konponbidean dugu: Donostia erabiltzea. Modu honetan, XII. mende amaieratik eta, batez ere, 40 urte lehenago lizartarrek erabiltzen zuten bidearen erabileran interes handiago bat zegoela erakusten digu.

Agiriari esker, Donostia nafarren portu lehenetsi bihurtuko zen. Alde batetik, Erresuma Zaharretik edo bertara joan-etorrian zihoazen merkatalgaiak zamatatu eta lurreratzeko erabiliko zuten. Bestetik, nafarrek Gaztelarekin zuten merkataritza-harremanaren lekuko izango zen, Gaztelan erositako edo kanpoan eskuratutako eta Gaztelan saltzekoak ziren produktuekin aritzeko aukera ematen baitzien. Bi esparruetan ezarritako erregimen fiskala desberdina izango zen: gaztelarrek hamarrena ordainduko zuten eta Nafarroara zihoazen edo Nafarroatik ateratzen ziren produktuek ez zuten zerga hori ordaindu behar,

hamarrena sortu baino lehen Fernando III eta Alfontso X.aren garaian indarrean zeuden sariak baizik. Azkenik, dokumentua nori zuzendua zegoen aipatu behar dugu: Antso IV.ak hori errespetatzeko agindua Donostiari zehazki bidaltzeaz gain, "Gipuzkoako beste lekuei" ere zuzendu baitzien.

Azken adierazpen honek ia berehalako isla izan zuen. Hondarribiak, "berau hobeto populatzeko eta biderik eginda ez zegoenez", 1286ko dokumentuan xedatutakoak erabiltzeko aukera izan zuen 1290eko abenduan eta handik bost hilabetera, 1291ko maiatzean, berrespina lortu zuen, bai bera populatzeko arrazoietan oinarrituz, baina, bereziki, Gaztela eta Nafarroaren arteko gatazka piztuz gero, nafarrei salgaiak ateratzeko 40 eguneko igaro-baimena emanaz. Horrek argi eta garbi agertzen du portua nafarrentzako zein garrantzitsua zen³⁰.

Urte horien inguruan nazioarteak guretzat interesgarriak diren kontuak ikusi zituen, hala nola, gaztelarrek Baionarekin 1293an egindako bake-ituna edota Baionako merkatariek 1298an atera zuten ordenantza bat, beraienak ez ziren ontzietan produktuak garraiatzea galaraziz, beste leku batzuetakoak erabiltzen zituzten seinale. Halaber, Mediterraneoaren eta Atlantikoaren arteko bidearen indartzeak, Frantzia eta Ingalaterraren arteko gatazkaren ondorioz itsasontzi gaztelarren merkataritza-erabilera handiagoak edota Ingalaterrako erregeek merkatarik atzeritarrekiko eta bereziki gaztelarrekiko izango duen begiruneak, Kantauriko portuen garrantzia areagotuko dute. Kantauriarren itsas antolakuntzaren adibiderik aipagarriena 1296an eratu zen Gaztelako Paduren Anaiarte edo Elkartea da. Sortu eta ia berehala, 1297ko urtarrilean, bake-ituna sinatu zuten Lisboako merkatariek eta, era berean, Frantziako erregeari laguntza emateko prest agertu zen apirilean, ingeles, baionar eta Flandriako kontearen aurka³¹.

Gipuzkoarrei buruzko berrien artean, Portsmouth-en

eta 1279an, Santanderko ontzi batean Pedro Arnao Estibauskoa ageri zaigu. Espainiako merkatarik gisa azaltzeak eta abizenak Altzan izan duen isla aintzat hartuta, agian Donostiarekin lotzeko aukera eman dezake. Handik urte batzuetara, 1292an, Arnao eta Pedro San Sebastianekoak daude; gutxira egindako agiri batek, berriz, euskaldunen arteko elkarlana agerian uzten du, 1296 urteko irailaren 16an Getariako "Le Holop" (Guadalupe?) itsasontziak lortutako igarotze baimenak, hain zuzen ere. Bertan ageri diren merkatarik, ontzi-maisuek eta marinelen zerrenda ezin argiagoa da, Getaria, Hondarribia, Bermeo eta San Sebastian abizenez josita baitago. 1311n, aldiz, Hondarribiko Andre Maria ontziko Arnald Bearritzek eta Iruñeko bere adiskideek Ingalaterrako Aldertonen porturatu behar izan zuten, hondoratzea ekiditeko³².

Mediterraneoan, berriz, donostiarraren adibidea bereziki azpimarragarria da. Alde batetik, baionarrek Sevillan zituzten ia pribilegio berdinak eskuratu zituzten 1318an, alde aurretik izan zuten jarduna areagotuz. Bestalde, Baionako koka bat Mallorcatik irtetzeko asmoz zebilen 1319an eta ontzia ondo tresnatzeko dirua mailegutan eman zuten bost lagunetik lau, donostiarrak ziren: Pedro Segurakoa eta Martin Igeldokoa ("Guello"), diru kopururik handiena jarri zutenak, eta Pedro eta A. Limogeskoak³³.

Adibideak euskal kostaldeko marinelen arteko elkarlanaren adierazle bikainak dira, baina aitortu behar dugu Oiarzunek ez duela agerpen agerikorik. Agidanez Bailarakoek beste jardun batzuetan begirada jarrita zuten. Talde indartsu baino txikiago batek burdin ekoizpenari helduko zion; gehienek, berriz, abeltzaintzari; bien artean nekazaritza eta baso ustiaketa genituzke, azken hau burdinolei estuki lotua. Lehen Hondarribiarekin izandako arazoak aipatu ditugun moduan, XIII. mende amaieratik ditugun datuek basoak eskaintzen zituen lehengaiak eta baliabideak oso interes handikoak izan zirela adierazten

30 MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)...*, aip. lan., 39, 58 eta 59 dok.

31 DA SILVA MARQUES, J. M.: *Descobrimentos Portugeses. Documentos para a sua História. Suplemento ao Volume I. 1057-1460. Lisboa: Instituto para a Alta Cultura, 1944-1971* (faks. arg.: Lisboa, Instituto Nacional de Investigação Científica, 1988), 15. dok.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: "Geografías mercantiles... ducado de Bretaña...", aip. lan.; ORTEGA VILLOSLADA, A. aip. lan., 200-202 eta 207 or.; RUIZ, T. F., aip. lan. 17 or.; SOLÓRZANO TELECHEA, J. A., aip. lan.

32 Azken datu horretarako, ikus ORELLA UNZUÉ, J. L.: "Geografías mercantiles... Inglaterra...", aip. lan. Getariako "Le Holop" itsasontziaren inguruan, marinetako seik Getaria abizena zuten, lauk "Fonte Araby", bik "San Sebastian" eta beste bik "Bermeo". Datu hauek eta Arnao eta Pedro San Sebastianenak, honako lanean: *Calendar of the Patent Rolls preserved in the Public Record Office. Edward III. A. D. 1292-1301*. Londres: Eyre and Spottiswoode, 1895, 203 eta 222 or.; Estibausen daturako, *Calendar of the Patent Rolls preserved in the Public Record Office. Edward I. A. D. 1272-1281*. Londres: Eyre and Spottiswoode, 1901, 338 or.

33 Horiekin batera, Juan Pont mallorcarra aritu zen (ORTEGA VILLOSLADA, A., aip. lan., 210 or.).

digute, bai Bailarakoentzat, baita kanpotarrentzat ere. Hala, 1270ean Bizkaiko jaunak Errenga saroean zuen zatia Orreagako Monastegiari eman zion; 1272an, berriz, Iherusalmengo Donibane Ordenak 22 saroe eskuratu zituen Oiartzun-Zortzaritzen eta 1316an donostiarrak ziren bertako egurra upelak eta kirtanak egiteko erabiltzen zutenak³⁴. Halaber, Oiartzunek ez zuen merkataritza-jarduerari lotutako mesederik lortu, ez behintzat modu zuzenean³⁵.

Edonola ere, itsasoak pixkanaka dei egiten zien oiartzuar zenbaiti, modu zuzenean nahiz zeharkakoan. Informazioak oso urriak dira, baina argi dago XIII. mendearen azken urteetan itsasoko merkataritzan eta garraioan sortutako olatu desberdinak Oiartzun ibaiaren ibi eta uharrizetara iritsi zirela. Xerezen ezarritako aduana-sareak areagotze bat izan zuen hamarkada gutxian, bereziki hamarren zaharrak errege-poltsari egindako ekarpen interesgarrien ildotik, eta honetan Bailarak eta badiak bazuten esatekorik.

Horren lekuko dira errege-sari horri buruzko 1293-1294ko kontuak, Oiartzungo portuaren garrantziaz hitz egiten digutenak³⁶. Horien arabera, Gipuzkoako portuek espezializazio bat zuten: Hondarribiak eta Donostiak hamaika lekutako salgaiak ekartzen zituzten eta Orio eta Oiartzun burdinaren esportaziorako guneak ziren. Gure portuari lotuta azaltzen diren kanpoko zein bertako 18 izenenen artean Berrio, Igeldo, Lugaritz, Perquer edo Otsoa Getaria donostiarrak azaltzea, negozio horretan bertakoek zuten interesaren erakusle dira eta ziurrenik beraiek izango ziren, eta ez oiartzuarrek,

34 IRIXOA CORTÉS, I., aip. lan., 102 or.

35 Dokumentatua dugun bakarra Azaroko Andre Maria egunez lurreko prestameroari egiten zitzaion 6 maraien ordainketatik libre uzten zituena da, Fernando IV.ak emandakoa (1295-1312). Noizkoa den ez dakigu, baina 1318an diru hori kobratzeko asmoen beldurra adierazten bada, agian zerga indarrean egotearen inguruan zalantza batzuk zeudela isla dezake, hots, agintaldiaren azkeneko urteetan gertatu zela. Mesede honen esanahiaren inguruan, merkataritza-jarduerarekin baino gehiago, agian lurrearekin estuki lan egiten zutenek eman beharreko ordainsari edo lansari moduan ikusi beharko litzateke, justizia kontuetarako. Edonola ere, bere inguruan gehiago sakondu beharko litzateke.

36 DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: "Comercio y fiscalidad en Guipúzcoa a fines del s. XIII (según las cuentas de Sancho IV)". In: *Euskalerriko Adiskideen Elkartea*, XXXVII (1981), 85-148 or. Dokumentuak azterketa handiago bat mereziko duelakoan gaude: produktuen bolumena, garaiko itsasontzien zamatze gaitasuna, Oiartzundik atera ziren kintalak garaiko burdinolen teknologia eta ekoizpenarekin harremanetan jartzea, agertzen diren pertsonen inguruan azterketa prosopografikoa, Gaztelako beste portuekin alderatzea eta abar. Ald. SOLÓRZANO TELECHEA, J. A., aip. lan., 226 or.

tratu horren kontrola eramango zutenak. Edonola ere, hainbat lekutako jendea gurean egoteko nolabaiteko azpiegiturak eratuko ziren, tartean, Kapitainenearen orubean azaleratutako labea bezalakoak³⁷. Pixkanaka, Orereta inguruak joan-etorri leku bihurtu ziren, merkatarik euskaldun zein atzerritarren eta bertakoen arteko harremanak areagotuz.


Ingurumari honetan garapenak aurrera egin behar zuen halabeharrez. Eraldaketen lekuko, 1318ko bi dokumentu ditugu. Lehenengoa ekainaren 6an eman zen eta bertan, Donostiarrako itsasbidea seguruago egiteko, erregeak bi ainguraleku jartzea agintzen zuen, bata, Donostian bertan eta bestea, Oiartzungo portuan, egungo Kodemastin³⁸. Ainguralekuak hautatzeko ardura Getariako eta Hondarribiko udalbatzek izendatutako pertsonak izango zuten. Azken deliberamendu honek bi hiribilduetan itsas jardueren garrantzia islatzen du, baina askoz adierazgarriagoa da erabaki horretan Bailarak inolako esku-hartzerik ez izatea. Getaria eta Hondarribiko itsasgizonek ingurua ondo ezagutuko bazuten ere, Oiartzunen edo Orereta aldean beraien jarduna bideratzen zutenek esatekorik izango zuten. Oiartzungo portua hamarren zaharra biltzeko lekua izaki eta ainguralekua jartzeko erregeak agirian bere zerga eta sariak bermatzeko ematen duen argudioa aintzat hartuta, bitxia da Bailarakoen inolako parte-hartze ez hori; eta deigarria da, baita ere, ainguralekua badia barrenean ez jartzea, Kodemasti baino aproposagoa izango zen leku batean.

Alboratze hori Donostiak eta Oiartzunek XIII. mendean sinatutako hitzarmenen ondotik uler daiteke edo, bestela, Bailararen ekonomiaren baitan, non abeltzaintza eta nekazaritzan oinarritutako jarduerak nagusitasun nabarmena izango zuten. Oiartzuarrek ez zuten itsas munduari lotutako ezagutza handirik izango oraindik eta, hala, Donostiari utziko zioten esparru horretan gauzak erabakitzeko ardura. Alde horretatik, 1389ko epaiak Donostiak prozesuan zehar aurkeztutako dokumentuak zerrendatzen dituenean, Bailarak

37 Labearen funtzioa zein izan zen ezin izan da zehaztu. Ikus MORAZA BAREA, A.: *Memoria del control arqueológico en el solar de Kapitanenea 6 -Kapitain Etxea- Erreterria (Gipuzkoa: Septiembre 2015)*. Donostia: Aranzadi Zientzia Elkartea, 2015, 53-69 or. Eskerrak eman nahi dizkiogu Erreterriako Udal Artxiboko teknikari den Leonor Garcíaari txostenaren kopia bat helarazteagatik.

38 MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 127 dok.

Atlas. Vesconte 1313.



Oiartzungo portuaren jabetza Donostiari aitortzen zion hitzarmen bat aipatzen du. Egia da agiria 1320 urtearen ondoren egin zela, Hiriberri aipatzen baitu, baina hala eta guztiz ere, Oiartzunek jabetza hori berrestea Erreneria sortu aurretik ematen ari zen dinamikaren adibidea izan daiteke, hau da, portuari lotutako gaietan Donostia zela ardura zuena³⁹. Honela, ainguratze-lekuen hautaketan inolako paperik ez izatea horren ondorio izango zen.

Oiartzun eta Erreneriak atzerriko artxiboetako itsas esparruari lotutako dokumentazioan aipamenik ez izateak, itsasoari bizkarra ematearen ideia hori berretsiko liguke. Dena den, negozio horretan parte hartzeko asmoak egon, bazeuden, izan biztanle gutxi batzuen edo askoren aldetik. Honela, hiri-gutunean azaltzen diren babes kutsuko argudioak argudio, Oiartzungo Hiriberria

sortzeko arrazoiaren artean, alboratua sentitu zen eta burdinaren negozioan esatekorik bazuen komunitate bateko hainbat kideren interesak leudeke.

Horren ildotik ulertu behar dugu 1318ko bigarren agiria, 1237ko agiriaren eta prestameroari eman beharreko dirua ez ordaintzearen mesedea berresten zituena. Began ematen duen lehenengo gauza bere data da, Kodemastiko akordiotik aste eta erdira burutu baitzen. Oiartzungo udalbatzak, alkateak, probestua eta hamabiek eskatuta egin zen, bertako hainbat aitoren semek erregearen sari edo zergak kobratzeko agertzen zituzten nahiak zirela eta. Agidanez, sei marai horiek biltzekotan zebiltzan eta oiartzuarren ezezkorearen aurrean, hauek atxilotu zituzten, errege-gutunen aurka joz. Alta, ondorioak latzagoak ziren, gehiegikeria horiek lekua hustuketa baitzekarten, bertakoak Baiona, Nafarroa eta beste hainbat lekutara bizitzera baitzihoazen. Agiria lortze aldera eskatzaileek ezegonkortasun hori nahita handitu izan zezaketenaren kontua alde batera utzita, bertakoak Baiona eta Nafarroara joateak, Bailarak zituen harremanen zenbait

³⁹ Datarik gabeko agiri hau Donostiak Oiartzuni emandako barkamen- idatzi bat izan zen, Bailarak eta Erreneriak Donostiako itsasontziei egindako erasoen ondotik. Barkamena emateaz gain, bien arteko auzotze-hitzarmenak berretsi egin ziren eta Oiartzungo portua Donostiari aitortu zitzaion. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección...* (1370-1397), aip. lan., 276 or.

zantzu ematen dizkigu. Ezin dugu ahanzi Oiartzun Baionako gotzainaren menpeko lurraldea zela eta, nahiz eta hiri horrekin zeuden loturak guztiz baketsuak ez izan⁴⁰, merkataritza-harremanak agerikoak izan behar zuten; gainera, ezin da baztertu burdin esportazioaren baitan gaskoiren bat bertan finkatu izana, nahiz eta komunitate sendorik ez osatu. Nafarroari dagokionez, harreman historikoez gain, agerikoa da Gipuzkoa ekialdeko portuek zuten garrantzia.

Bi agiri horiez gain, badiaren erabileraren areagotzeak Oiartzun eta Donostiaren arteko hitzarmen gehiago sustatu zituen. Kodemastiren agiriaren garaian ehun urte lehenago sinatutako hitzarmenak indarrean zeuden, baina, horrez gain, bestelakoak ere sinatu ziren, nahiz eta zehazki noiz burutu ziren ez jakin⁴¹. Horietako batek, Bailarak eta Donostiak komunean zituzten lurren eta pribilegioen berrespen inguruan auziak izatekotan, Oiartzunek gastuen hogeirena ordainduko lukeela adostu zuen. Hitzarmen honetan esandakoa Kodemastikoan Oiartzunek zuen partaidetza ezari lotuz, giroa berotzen hasita zegoela uste dugu, alde zaurretik zetozen harrotutako hautsak hauspotzen ari zirela. Beste era batera esanda, gastu edo kostuei buruzko klausula, esparru judizialean hodei beltzak ikusten ari ziren seinale litzateke.

Horregatik etorriko zen bigarren hitzarmen adierazgarria, are adierazgarriagoa dena: lonja bat eraikitzekeo proiektua, hain zuzen ere. Helburua, salgaien lurreratze eta zamaketa kontrolatzea zen, burdinarena, aleena zein bestelako produktuen. Horretarako, higiezinaren eraikuntza, kudeaketa eta bertatik lortutako mozkinak erdibana izango zituzten Oiartzunek eta Donostiak⁴².

40 1306, 1309, 1311 eta 1328an Baionarekin sinatutako su-etenek islatzen duten moduan. Ikus SOLÓRZANO TELECHEA, J. A., aip. lan., 230 or.

41 Hemen ere 1389ko epaiak esandakoetan oinarritu behar gara, zerrendatzen diren gehienak galduak daudela ematen baitu. Datuak ez dira ugariak baina epaileak aipatzen dituenek (hau da, neutraltasun teorikoa duen erregeak) eta agirien zenbait ezaugarri formal (euskarria, zigiluak, zeinuak...) aditzera ematen direnez, benetakoak zirelakoan gaude. Datuen gabeziak zailtasunak ematen ditu, baina Hiriberri aipatzen diren horiek, adibidez, 1320 urtearen ondorengoak dira; hiribildu horri inolako erreferentziarik egiten ez diotenak, ordea, datatzen zailagoak dira, baina Hiriberri sortu aurretik burututakoak izan zitezkeelakoan gaude, 1315-1320 ingurukoak.

42 "carta sellada (...) por la qual se contenía que los dichos concejos de la dicha villa de San Sabastián y de la dicha tierra d'Oiarzo que ficiessen una casa en su término en el lugar do no estaba declarado en la dicha carta, en la qual casa ficiessen cargos y descargos de fierro

Agiri hau badiaren garapen ekonomikoaren adierazle bikaina da, baita gauzak aldatzen hasiak zirenen islarena ere. Erretertia sortu aurretiko dokumentutzat bagenu, argi adieraziko luke inguru horren geroz eta garrantzi handiagoa. Hamarren zaharren bilketak XIII. mendearen amaieratik eskatzen ari zen fundamentuzko azpiegitura bat eratzea ekarriko luke, alde zaurretik egon zitezkeen xumetasunaren aldean.

Lonjaren hitzarmenak ere 1318ko ainguratzearen zergatietako bat itsasontzien agerpena nabarmen gora egiten ari zela islatuko luke. Paduretako Anaiarteak eskualde horretako itsasgizonen agerpena sustatuko zuen⁴³, baina Oiartzungo portua nazioarte mailan ere garrantzia eskuratzen ari zen. Kartografiari erreparatuz gero, 1275-1290 aldera egindako "Gutun pisarrak" Baiona, Donostia eta Castro Urdiales bakarrik islatzen zituen mapan, baina egoera urte gutxiren buruan irauliko da. Erretertia sortu aurretik ohikoa bihurtu zen Gipuzkoako kostaldean Higer, Hondarribia eta Getariarekin batera "Uarca" edo Oiartzun aipatzea, Vescontek 1313an eta 1320an egindako gutun nautikoek eta mende horren lehenengo laurdeneko Genoako Anonimoan ikus daitekeen moduan⁴⁴.

Isla positibo hauez gain, lonjaren proiektua Donostia tentuz jokatzen ari zenaren zantzua litzateke, egonezinak sortzen ari baitziren. Alde batetik, Oiartzungo portua Donostiari aitortu zitzaioleko; bestetik, Oiartzunek Kodemastiko ainguralekuaren gaian baztertua gelditu

y de cebera y de otras mercaderías y que ficiese a costa de amos los dichos concejos y que lo que rindiese la dicha casa que fuese de por medio para amos los dichos concejos, e que se guardasen todas las dichas posturas y condiciones y avenencias que ante d'esto eran fechas..." (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección...* (1370-1397), aip. lan., 276 or.).

43 Hala esaten zen 1374an: "que se usara e usava de tan grant tiempo acá como dicho es de descargar la meitad del dicho pan, que venían a cada uno de los dichos **puertos d'esa marisma** para mantenimiento de cada una de las dichas villas de donde son los dichos puertos..." (CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., 13. dok). Lehenago, Erreterriak eta Donostiak portuaren inguruan 1339an sinatu zuten hitzarmenean, lekuko gisa Castro Urdialesko auzo bat, Bermeoko bost eta Hondarribiko bat zeuden, besteak beste (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección...* (1200-1369), aip. lan., 206 dok.).

44 Vesconteren 1313korako: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b5901108m/f12.item.zoom>; 1320korako: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b550070918/f8.item> (A driadikoa eta Siziliari gaizki egokitu zaizkion irudiak). Material honen inguruan egindako bilduma ikusgarri baterako, PUJADES I BATALLER, R. J.: *Les cartes portolanes. La representació medieval d'una mar solcada*. Bartzelona: Institut Cartogràfic de Catalunya, 2007.

zelako. Funtsean, urduritasuna interes-talka batzuen fruitua litzateke. Bailararen lurretan sortzen ari ziren talde desberdinen garapenak ekarritako interesena, hain zuzen ere. Batetik olajaunak eta Oreretan hiribildua finkatzea eskatu zutenek osatutakoa; bestetik, Oiartzun eta Donostia. Beste era batera esateko, XIII. mendearen hastapenetan hitzarmena sinatu zuten zuzen gain, beste eragile bat sortzen hasia zen.

Arazoak ekiditeko, 1318-19 aldera lonjaren eraikuntza planteatu zela uste dugu. Bailarako gehienak abeltzain eta nekazariak izaki, portuari lotutako kontuak arrotz sentituko zituzketen. Oiartzunek eta Donostiak bi mundu osatzen zuten: batetik abeltzain eta nekazariak; bestetik, olagizonak eta merkataritzari lotutako jardunetan zihardutenak. Azken hauek produktu ugariarekin jarduten zuten, begirada nagusia burdin esportazioan jarriz.

Oiartzuarren nekazaritza-izaera hori 1381ean gertatu zen epaian oso argi azaleratzen zaigu, hiribildura bizitzera ez joateko arrazoia lurrari lotutako jardunetan oinarritzen baitute⁴⁵. Halako argudioak jarrera zuzitzeko erabil zitezkeela pentsa dezakegu, baina Oiartzungo gizarteak bere buruaz zuen ikuspegi horretan bada isilune adierazgarri bat, eta beraien jarrera azaltzeko balioko zuena: burdinolen munduarena. Bailarak emandako azalpenetan esparru horri inolako aipamenik ez egitea benetan esanguratsua da, zer esanik ez lrun eta Oiartzungo olajaun eta olagizonen 1328an beraientzako propio egindako forua eskuratu zuten Gipuzkoako lehenengoak izanda. Aipamen ezak burdinolen esparruak Oiartzungo gizartearen zati handi batentzat mundu arrotz bat zela adieraziko luke edo, gutxienez, interes desberdinak zituela.

Kodemastik eta 1320ko hiri-gutunak ageriko harremana duten bezala, beste horrenbeste esan dezakegu bigarren horren eta olagizonen foruaren artekoaz. Oreretan hiribildua ezarri nahi zutenek eta olajaunek interes komunak zituzten. Burdinari lotutako negozioa modu zuzenagoan kudeatzea bilatuko zuketena, merkataritza donostiarren eraginik gabe. Olajaunentzako propio

7. Etxetik ere, herri bizia

Osasun-krisiaren ondorioz etxean egon beharra ez da muga izan Errenteriak bere berea duen sormen eta kulturarako sena garatzeko. Horren adibide izan dira 700. Urteurrena tarteko antolatutako ekimenak, herriko eragile eta norbanakoen ekarpenei eskereraikitakoak eta bizi zen ariginen egoera islatzeko balio izan dutenak. Apirilaren 5eko 'Plaza etxean' eta 'El Centenario' bideoekin eraikitako balkoietako hitzorduak, edota 'Begiradak leihoetatik' eta **"Leiho guztiak, leiho bakarra"** film kolektiboak garen komunitatea islatzeko eta ospatzeko parada polita eskaini digute. Zalantzarik gabe, balio handiko dokumentuak etorkizunera begira!

Baina pandemia honetan eta bereziki, konfinamenduan, beste hainbat udal-ekimen ere izan ditugu bidelagun: *Kultur Labea*, herriko sortzaile ezberdinen lanez gozatzeko aukera eskaini diguna; Eskola Feminista, herriko emakume askoren bidelagun izan dena; Familia-gunearen,

"El confinamiento trajo consigo que la violencia machista desapareciera de nuestras calles, pero sabemos que este tipo de violencia se da más en el ámbito privado y que este contexto ha acentuado esta realidad invisible"

"El Ayuntamiento puso a disposición de las mujeres la asesoría psicológica y jurídica de la Casa de las Mujeres y el mensaje de llamada al 010 ante cualquier agresión"

"El 24 de abril presentamos con el consenso de todos los grupos políticos el Plan de Choque y Reactivación para hacer frente a las consecuencias económicas de la crisis sanitaria"





“Las medidas del Plan han querido integrar una doble visión: una inmediata, recogiendo medidas que tienen por objeto incidir de forma inmediata en la realidad; y otra a medio plazo, con medidas que favorezcan la recuperación económica y permitan seguir velando por los sectores de población y economía más sensibles y estratégicos.”

“La necesidad de estar en casa como consecuencia de la crisis sanitaria no ha impedido seguir desarrollando el sentido de creación y cultural tan propios de Errenteria. Ejemplo de ello es el 700 aniversario de la villa.”

“Esta crisis nos ha puesto en lo peor. Y como pueblo hemos sabido dar lo mejor. Con solidaridad y colaboración hemos sabido actuar como una única comunidad y cuidarnos mutuamente. Tanto la ciudadanía, como el personal municipal y los partidos que conforman la corporación municipal.”

ludoteken eta gaztelekuen proposamenak, herriko gaztetxoenei egunero aisialdirako proposamenak luzatu dizkietenak; edota kirol eremuko eta liburutegiko eskaintzak, etxeetara sarbidea izan dutenak.

8. Udalaren lidergoa, hurbilekoa eta zuzena

Konfinamendu-garaian, inoiz baino beharrezkoagoa izan da ekimenen inguruko informazio jarraitua, zerbitzuak eta informazioa erraz eskuratzeko modua jartzea, eta informazioaren ahalik eta hedapenik zabalena lortzea. Horretarako, Udalaren 010 telefonoa eta herribizia udal kanal komunikatiboa (webgunea eta facebook- eta twitter-kontuak) inoiz baino funtsezkoago bilakatu dira; eta inoiz baino gehiago erabili ditugu konfinamenduak iraun duen bitartean, erraz zabal daitezkeen bideo-pilulak, neurri garrantzitsuenen berri emateko. Bestalde, ahalegindu gara adin guztietako herrikideak, helduak eta haurrak, aintzat hartzen, baita gure herriko hizkuntza-komunitate desberdinengana informaziozirik esanguratsuena euren hizkuntzan iristarazten ere.

Elkar zaindu(ko) duen herria

Hasieran aipatzen genuen, osasun-krisi honek aurrez ezagutu gabeko eta sekula irudikatu gabeko egoera baten aurrean jarri gaituela. Txarrean jarri gaitu. Eta herri gisa, gure onena ematen jakin dugu. Elkartasunez eta lankidetzan jardunez, komunitate bakar gisa jokatzeko eta elkar zaintzeko jakin dugu. Nola herritarrek, hala udal-langile, zein udaleko alderdiek ere. Maila guztietan elkarrekin jardunez.

Ziurtagabetasuna ikargarria den garaiotan, ziurtasun bat erakutsi diogu elkarri: elkar zaintzeko prest gaudela. Eta pandemiaren aurretik egin dugun udalgintzak krisi honi aurre egiteko prestatu gaituela esan dugun bezalaxe, nahi genuke pandemian artikulatzen eta ehuntzen jarraitu dugun komunitate-senak datorrenari ere aurre egiteko balio izatea. Hala izan dadila.

Herrikide zaitudan horri

IRAGANA GOGOAN, GEROAREN ATARIAN

Mikel Ugalde

Gure herriaren 700. urteurrenaren ospakizunak gure aurrekoak lur honetan, hainbat mendetan nola bizi izan ote diren pentsarazi dit. Haiek bezala, gu ere gainontzeko herritar guztiekin batera, neurri nimiño batean bederen, herri honen historiaren partaide eta eragile izan gara. Herritar soila naizen aldetik, gure herri-historiaren hamarrena bizi izan dudanez, bihotzaren esanetara, nola sentitu naizen azaltzen saiatu naiz. Neurri handi batean, nire nitasuna herri honi zor baitiot.



▲ Errenteriako bista orokorra, Kaputxinoak gainetik. Aurrean, Iztieta auzoa ikus daiteke. (1968ko urriaren 4a).

Abia gaitzen

Gutako bakoitzaren bizi-abiapuntua familia da dudarik gabe. Nik ama oikiarra nuen, aita hondarribiarra. Errenterian kabia osatu zutenean, ordea, bertako sentitu ziren. Haiei eskerrak, gure herri historiaren hamarrena bizitzeko aukera izan dut.

Udaletxe pare-parean jaio eta bizi izan nintzen Versailles ingurura aldatu ginen arte. Esan gabe doa Kaputxinoetako Gain hura urruti gelditzen zitzaigula garai hartan.

Familia bizitzari dagokionez, ez dut zurearenarekin alderatuz alde handirik izango denik uste.

Oraingo honetan, gure herri historian txer-tatutako zerbait den aldetik, iraganean nigan eragin handia izan duten, eta nolabait nire biziera markatu duten, hainbat gertaera, erakunde edo pertsona gogoratuko ditut.

Eliza

Gerra amaitu eta gero, 1940an jaio nintzen geroztik, Eliz giroak eragin handia izan zuen nigan. Jaio eta, Linbora joan ez nendin edo, berehala bataiatu ninduten. Bizi ere eliza nagusitik hogeiren bat metrotara bizi ginen eta, ondorioz, erabatekoa izan zen haren itzala nire lehen urte haietan. Gurasoak oso fededunak izaki, ni ere horretara bultzatu ninduten. Luzaroan ez bazen ere, akolito zereginetan aritu nintzen.

Oroitzapenak, ordea, gazi-gochoak izan dira. Beldurpean hezi ninduten fede-bizitzan. Jainko epaile zorrotza, eliz aginduak, hilero eta zuzen egin beharreko aitortzak, Garizuma eta Aste Santuko sermoi eta elizkizunak, geroago luistarren ospakizunak, lizunkeriari buruzko etenik gabeko mezuak, bekatuaren larria, infernuaren arriskua...

Aitortu beharra daukat, denboraren joanean, oro har, garai hartako apaizen izaera eta jarduera meritu handikoa zela. Don Roberto Agirre ataundarra lemazain, arraunlari bikainak bazituen inguruan untzia aurreikusten zuen kaletik bideratzeko. Apaiz apalak, langileak, fede handikoak, saiatuak... Izan ere, garai hartan apaizak denetarik egiten zuen: kristau artzain gidari, familien gorabeheretan aholku emaile, hezibidean gidari eta psikologo. Inoiz, testamentua egin behar eta, aintzat hartzekoa ere izaten baitzen apaizaren iritzia.

Izan ere, garai hartan apaizak denetarik egiten zuen: kristau artzain gidari, familien gorabeheretan aholku emaile, hezibidean gidari eta psikologo. Inoiz, testamentua egin behar eta, aintzat hartzekoa ere izaten baitzen apaizaren iritzia.

Aste Santuko prozesioa Jasokundeko Andre Mariaren elizara sartuz. Plaza betearen aurrean, aldarea eta zutoihalak dira ofizioen buru, parrokiako eskalinatatik hasita.



Denboraren joanean, nahiz eta umetan beldurra genion, gero eta gehiago baloratzen dut garai eta giro hartako don Robertoren itzala. Oro har, talde bikaina osatzen zuten igande arratsaldeetan, Goiko kaletik gora ibilalditxoak egiten zutenean.

Gai honekin amaituz, aitortu beharra dut, beste inor gutxietsi gabe, erosoan don Markosekin aurkitzen nintzela. Horretaz gain, beti berariaz eskertu izan dut don Jose apaizaren izaera, jarduera, euskaltasuna eta ikastolarekin izan zuen portaera.

Gauzak nola diren...Urteak joan ziren... Papeleran hiru urtez aritu nintzen eta... hogei urte nituela, gerora utziko banuen ere, Seminaria jo nuen apaiz egiteko asmoz.

Bidelagun zaitudan irakurle horrek, beldurrik gabeko heziera izan baduzu: zorionak.

Eskola

Nahiko arrunta izan da nire eskola-bizitza. Hiruzpalau urte izango nituen Gurutzearen Alabetara eraman nindutenean. Hasieran Anttoni izeneko andereak hartzen gintuen. Gerora sor Manuela mojarrekin aritu ginen, ikasketa bidean, lehen pausoak ematen. Pazientziko emakumea zen. Hala ere, noiz behinka kainabera ere dantzatzen zuen gu isilarazteko. Kolpeak belarrira egiten zutenean min gehiago hartzen nuen. Nire lehen antzerki saioa han egin nuen mediku gisa... erdaraz, noski. Gustura ibili nintzen.

Lehen Jaunartzea egin eta gero, fraidetara zuzendu ninduten. Bertan jarraitu nuen hamalau urte egin nituen arte.

Fraide triste samarrak iruditzen zitzaizkidan, bigarren mailakoak, ez baitzuten mezarik ematen. Polikarpo anaia santu egin nahian otoizka eta diruz laguntzen saiatu ginen, baina oraindik horretara iritsi gabea dela uste dut.



Langile amorratuak ziren fraideak, eta ingurukoak ere jarraitu beharrean aurkitzen ginen. Gela bakoitzeko ikasle talde handia ginen eta guztioi zuzen erantzuten saiatzen ziren.

Aitortu behar dut azken urteetan bekatu txikiren bat ere egin izan nuela. Inaki, nire anaia, eskola berean ibilia zen eta hark kontabilitate ikasgaietan eginiko lanez baliatzen nintzen kopiatu eta "sobresaliente" ateratzeko.

Irakasleak erdaldunak ziren eta gaztelania zen eskolako hizkuntza eremu guztietan.

Oro har, ikasleok ongi prestatzen gintuzten.

San Jose-Hijas de la Cruz ikastetxe zaharra, Gabierrota pasealekuan. 1977ko iraila.



Gure herri honetan, gainontzekoetan bezala, herri bizitzaren oinarri eta zutabe izan dira herriko eskolak.

Ereintza Kultur eta Kirol Elkarte

Elkarte honek nire bizitzan izan duen eraginaren eta gure herri eta gizarteari eskaini dion guztiaren inguruko gogoeta labur bat doakizu jarraian. Ez, noski, elkartearen historia marrazteko asmoz, hirurogeigarren hamarkadatik aurrera bere ekarria gogoratze aldera baizik.

Gogoan dudanari jarraituz, Ereintza Jesusen Bihotzeko Anaidiaren eskolan sortu zen. Garai hartan, hainbat eskolatan ikasle ohien elkarteak sortu ziren. "Antiguos Alumnos" deiturapean ezagutzen genituenak. Fraideek eginiko deialdian, lehen momentutik beraien asmoa azaldu ziguten. Entzun genien, biltzen hasi ginen, eta berehalakoan beste bide bati jarraitzeari, hots, gazteon elkarte sortzeari ekitea erabaki zen. Hirurogeigarren hamarkadaren atarian, herriaren onerako izan zitekeen elkarte sortu eta ereitea zen gazteon ametsa.

Benetan erabakigarria eta eskertzekoa izan da gure herriko fraideek Ereintzaren sorreran izan zuten jarrera eta erakutsitako portaera. Elkarte sortu berriak, elkartearen ikur eta



Telleri Alde eraikin zaharra.


*Mende erditik
gora lanean
diharduen
elkarte honek
on handia
egin dio
gure garaiko
belaunaldiari
eta Erretereria
herriari.*

guzti, eskolan bertan bideratzen baitzuen zenbait ekintza. Gerora Beheko kalera aldatu zen Ereintza.

Ereintza elkarte herri mailan oso gertukoa denez, sorrerari buruz bi aipamen: elkarte jaio berriak, nahiz eta frankismo garai hartan oztopoak latzak izan, inongo morrontza eta menpekotasunik gabe, bere buruaren jabe izateko aukerari heldu zion. Horretaz gain, elkarte mistoa izatea erabaki zuen, hots, neska-mutilez osatua alegia.

Mende erditik gora lanean diharduen elkarte honek on handia egin dio gure garaiko belaunaldiari eta Erretereria herriari: kirol alorrean eginikoak, euskararen inguruan landutakoak, euskal folkloerari eman zion bultzada, bere apaltasunean antzerki taldearen herriko jaietan eskainitako emanaldia, lehengo tradizioei eskainitako arnasa (sanjuanetan, madalenetan, Gabonetako ospakizunetan, Abestaldeen arteko txapelketan, Santa Agedan...). Aipamen berezia merezi du eskulangintza-ren munduari heldu eta sortarazi zuen mugimenduak. Herritar eta bazkide arrunta naizen aldetik, honek guztiak zuzenean eragin dio nire eta gure garaiko herri bizitzari eta, ondorioz, gure herri historiaren azken hamarren honi.

Ereintza elkarteko kideak 1960an Donostiako "el Chofre" zezen-plazan ospatutako Euskal jaietan.



Grupo de Baile Ereintza. Euskal Jaiak de San Sebastián. Plaza de toros del Chofre. 1959.

Euskararen mundua

Euskara eta euskalgintza kabi aparta izan da Erretereria. Denetariko eragileak izan ditugu. Joan zitzaizkigun bakarren batzuk baino ez aipatzearren, Koldo Mitxelena bezalako hizkuntzalariak, Jautarkolek eta Atañoek eskaini dizkiguten irakurgai atseginak, Xenpelarren mailako bertsolariak...

Euskararen egoera eta etorkizuna gogoan hartuz, baguen kezka nagusi bat hirurogeigarren hamarkadan. Garai hartako aldizkari eta kultur ekitaldietan sarritan jorratzen zen gaia: euskara hiritartu beharra, alegia. Askotan baserri girotik irten eta kaleratzean, gazte askok, orain zehazterik ez ditugun arrazoiengatik, euskara erraz galtzen ote zuteneko susmoa nabaria zen. Giroak berak ere horretara bultzatzen zuen. Zenbaitetan, euskaraz egiteak lotsatu egiten gintuela zirudien... Pello Kirtenek eta antzekoek eskaintzen ziguten umoreak ere ez zion euskarari batere onik egiten.

Gurean bezalako herri langile batean, bestalde, jendea uholde gisa zetorkigun garai haietan, erdarak euskara menperatuko ote zuen beldur ginen, ez baitzen euskararen egunsenti hurbila ikusten. Baserri munduak berea eman zezakeen, baina egunerokotasunean errotutako euskara hiritartua ezinbestekoa zen. Historiaren azken hamarrenean gure herriak denetarik bizi izan zuen alor honetan.

Hala ere, ez omen da gaurik egunsenti gabekorik eta, gurean ikastola jaio zitzaigun eta euskara kimuberritzen hasi.

Orereta Ikastola

Haur jaioberri batek bizi-poza sorrarazten eta zabaltzen du bere inguruan eta, batez ere, familian. Horrela bizi izan dugu ikastolaren sorrera eta bilakaera. Herri oso baten babesa izan du ikastolak euskal lurralde guztietan. Gogoan izatekoa da hasieran abiarazi zuten guraso haien adorea ikastolaren aldeko

hautua egiterakoan: ez legerik, ez baimenik, ez eraikinik, ez testu libururik... klandestinitate gorrian... Seme-alaben etorkizuna jokoan... Hala ere, aurrera egin zuten. Eta herriak erantzun egin zuen: eraikin eta osagarriak hornitzearen, diruak eta bermeak jarritz, euskarazko bitartekoak sortuz, irakasle euskaldunak eskuratzearen, gazteak maisu eskoletara bultzatuz eta irakasleak sortu zitezkeen animatuz... Hau guztia bizirik dirauen herri historiaren osagarri eta ezaugarria izan da gurean. Eskerrik asko guztiei. Egin duzuenari eskerrak seme-alabak ikastolan hezitzeko aukera izan dugu.

Miresten ditut gida batzordean jo eta su lanean aritu izan direnak, ilusioz eta gaitasunez erantzun duten irakasleak, benetako ardura bereganatu zuten gurasoak... Eskertzen dut hizkuntzaz erdaldun izanik ere, seme-alabentzat ikastolaren hezibidea onartu duten gurasoen portaera...

Ibili-ibilian, funtsean erronka handi bat zegoen jokoan. Izan ere ikastola gainontzeko eskolen mailan erakusteko gai izango ote zen zalantza jartzen saiatzen baitziren han eta hemen. Geroak ongi erakutsi izan digu apustua ongi irabazi izan duela.

Euskalgintzaren eragileak

Euskararen ibilbidean gidari eta bidelagun ezin hobeak izan ditugu. Euskaltzale zintzoek prestatu diguten edariari eskerrak ase izan dugu egarria. Beharbada harreman zuzenagoa izan dudalako, Koldo Mitxelenaz gain, Bittor Idiazabal, Xabier Olaskoaga eta Andoni Korta, zein baino zein euskaltzaleagoak.

Balio handikoa da, dudarik gabe, euskarari eskaini zitzaion ekarpena, fededun sendoa izateaz gain, familia, lana eta ikastolan kokatzen dut Bittor. Ez zen bide erdian gelditzen zen horietakoa. Zuzena eta sutsua zen pentsaeran eta egiteetan. Hark ereindako haziak lurra indartsu hartu zuen hainbat eremutan.

Haren garaian, 1968an abiatuta, euskara batu beharri ekin zion Euskaltzaindiak. Hainbat erabaki hartu beharra zegoen euskarak aurrera egin zezan. Euskara batua ezinbestekoa zen, euskalkiak baztertu gabe, euskararen etorkizuna ziurta zedin. Euskaltzaindiak, Koldo Mitxelena herritarra aitzindari zela, bidea zabaltzeari ekin zion. Grafiaren inguruan eztabaida sortu zen, beste hainbat arazorekin gauzak nahastu ziren eta "H madarikatua" tarteko zenbaitetan giroa ozpindu zen. Belaunaldi horretako euskaltzale askok, Bittorrek barne, asko sufritu zuen. Orduan gazte ginenok lotsagabe xamarrek ginen...

Xabier Olaskoagari buruz, besteak beste, Madalen Deunaren ereserkia idatzi zuenari buruz, zer esan dezakegu? Erdaraz esan ohi den bezala, "todo terreno" bat genuen. Herri giroan harreman handikoa, bakezalea, autodidakta, musikan jantzia, hainbat ekitalditan ezinbesteko aurkezlea. Euskararen jaialdi edo ospakizuna non Xabier han izango zen. Garai zail haietan ekarpen handia eskaini zion gure herriari.

Aitortu behar dut Ereintza Antzerki Taldearekin eta, berariaz, Andoni Kortarekin oso harreman berezia, estua, izan dudala.

Ereintzako antzerki taldeko kideak. Zutik: David Gomara, Jaione Lizarazu, Andoni Agirregomezkorta, Arkaitz Gomez, Josu Eizagirre, Jaione Pikabea, Sabin Irastorza eta Mikel Ugalde. Eserita: Naiara Gago, Arantza Perez eta Lierni Garcia.



Oso maitea izan dut Andoni, haren emaztea eta familia osoa. Andoniren itzalpean euskal historian hezi, euskaltzaletu eta alfabetatu nintzen. Herritar euskaldun arruntari, sarritan euskaraz alfabetatua gabea zen gizon-emakumeari euskaraz erantzuten saiatu zen. *Zeruko Argiara* bidaltzen zituen kronikak xumeak, gertukoak, irakurgarriak ziren. Herrietako pasadizoak, familietako ezkontzak, jaiotzak eta hiletak oso gogokoak zituen, “jendeak horrelako gauzak gustura irakurtzen baititu”, errepikatu ohi zuen.

Koldo Mitxelenari eskerrak ezagutu nuen Andoni. Harengana jo genuen antzerki talde bat martxan jartzeko asmoa azalduz Eta gudan sinestu zuen... Andoni bera izan zen Ereintza Antzerki Taldearen sortzaile, gidari, zuzentzaile hil zen arte. Maite gintuen Andonik eta guk ere maite dugu.

Euskararen ibilbidean gure aitaordeko izan da.

Elkarbizitza

Aurrera begira itxaropenerako baldintzak baditugun arren, elkarbizitzari dagokionez, era zuri-beltzean bizi izan dudala sumatzen dut. Gerra ondorean jaioa naizen aldetik, gure herri historiaren hamarrenaren erdia, 35 urte denera, diktaduraren garaian igaro nituen. Honek eragin zuzena izan zuen etxeko bizitzan, eskolan, lagun artean, kristau bizitzan, giza eskubideen zapalkuntzan...

Franco hil eta gero, demokraziaren leihoa zabaltzeari ekin zitzaionean, deigarri egin zitzaidan herriko kaleetan, esku orrietan, azaldu ohi zen ezker-eskuineko sigla-hotsa. Hara nola bakarren batzuk aipatzearen, EAJ-PNV, PSE-PSOE, ESB, HB, PC, EMK, OIC, ORT, ESEI, EE, LAIA eta abar. Sindikatuetan ere antzeko zer bait: CC.OO, ELA-STV, UGT, USO, LAB, LAK...

Gure bizialdian ezagutu dugu ETArek sorrera, bilakaera eta amaiera. Atentatuak, heriotzak, espetxeratuak, torturak... Errepre-

Orereta ikastolako taldearen emanaldia, Galtzaraborda Udal Kiroldegian 1983. urtean egin zen eta Ereintza elkarteak antolatutako Haurtzaro Gazte Lehiaketan.



sio indarrek gure herrian eragin zituzten zuzeneko heriotzak... Sufrimendu latza bizi izan dugu hainbat urtetan.

Langileriaren borroka bideari zegokionez, iritziak eta aukerak ez zetozen bat. Langileen mobilizazio eta asanblearismoaren aldekoak ziren batzuk, sindikalgintza instituzionalizatuaren aukeraren zale besteak...

Herritarron arteko elkarbizitzan eragin handia izan du honek. Gure harremanak ez dira beti nahi eta behar bezalakoak izan. Gure herriaren deiturari buruzko desadostasunak berak ere hori erakusten du.

Joanak joan, egunsentirik gabeko gaurik ez dagoenez, gurean, elkarbizitzari dagokionez, pauso sendoak eman dira azken hamarkada honetan, bake eta giza eskubideen aldeko lehian. Bihoakizue gure esker ona lan horretan aritu zareten guztioi.

Bukatzeko

Honaino iritsi zaren irakurle horri, eskerrik asko. Herri baten bizitza eta historia zenbakiak, estatistikak, gertaeren zerrendak eta narrazioak baino gehiago da. Sarritan nire buruari galdetu izan diot ea gure aurrekoak nola bizi izan ziren, nola sentitzen ziren, beraien arteko loturak nolakoak ziren...

Herritar xume honek, zurekin bat eginik bizi naizen honek, beste herritarrekin batera, herri hau eraikitzen saiatu izan den honek, nola bizi izan garen adierazi nahi izan dut gaurko honetan. Besterik ez.

Franco hil eta gero, demokraziaren leihoa zabaltzeari ekin zitzaionean, deigarri egin zitzaidan herriko kaleetan, esku orrietan, azaldu ohi zen ezker-eskuineko sigla-hotsa.

“Maritxa” eta Julian

Bidegurutzeak elkartuak

Bi protagonistak:
Ezkerrekoa
(betaurrekoduna)
Joxe Luix Maritxalar
eta eskuinekoa (ile
txuriduna), Julian
Albistur.

Xenpelar bertso eskola



2020ko urtarrilaren 18a zen, urtea oraindik nagiak atera eta esnatzen hasia zen. Larunbata izaki, jende multzo eder xamar bat bildu ginen Udaletxe azpiko arkupetan. Eguerdia zen eta eguzki goxoaren laguntzaz, gure goxotasuna eta aitortza helarazi nahi izan genien Xenpelar Bertso Eskolan hainbat eta hainbat urtez lanean jardundako bi lagun handi hauei. Ekitaldi sorpresa bat izan zen eurei prestatu geniena, baina ezustean harrapatu ez gintuena, gure bi protagonisten gizatasuna eta dotorezia izan ziren. Egunean bertan eta batez ere, eurekin partekatu dugun ibilbide guzti honetan ikusi ahal izan duguna, bestalde.

Baina nor dira benetan “Maritxa” eta Julian? Zer eman diote bertso eskolari? Hurrengo lerroen bidez, ekitaldi beraren eta hain hurbilekoak ditugun protagonisten ibilbidearen hainbat zertzelada ematen saiatuko gara, haiekin bizi izandako guztia herriarekin partekatzeke asmotan idatzitako testu honen bidez.

Has gaitezen bukaeratik, baina. Esan bezala, eguerdiko kanpaiak entzun aurretik, jende mordoxka bat bilduak ginen Udaletxe aurreko plazatxoan. Ordurako, bertso eskolako zenbait kide aurretik bertaratuak ziren, prest zeuzkaten mikrofono eta baffle xume batzuk, nola ez, egun hartan protagonista bihurtu behar zutenen hitzen eta kantuen testigu izango zirenak. Ahoz aho gertuenekoei egindako deialdi bat izan zen, senideetatik hasi, lagunetara pasa eta eurekin mila eta bat abentura partekatu dituztenetaraino iritsi zena. Xenpelar bertso eskolako egungo kide eta kide izandako ugari bertaratu ginen hara, eta inguruko bertso eskoletako beste hainbat lagun ere bai. Guztiak ere, garrantzitsuak eta gertukoak... baina ezinbestekoak falta ziren, gure protagonistak.

Denon ahotan, komentario berberak entzun zitezkeen hitzordua gerturatzen zen bitartean: *Zer moduz pasa dute astea? Ezer susmatzen al dute? Bota diegun amua guztiz irentsi ote dute? Nola hartuko ote dute prestatu dieguna ikustean?* Irribarre eta komentario barregarrien artean, urduritasun punttu batez mintzo ginen denok. Bat-batekotasunak horixe dauka-eta: aurretiaz emaitzarik ezin dela jakin.



◀ Familia argazkia: Bertso-eskola, senide, lagun eta protagonistek harremana izan duten herriko beste hainbat eragilerekin.

Gure protagonistak agertu ziren halako batean, bakoitza bere modura eta bakoitza, bere erreakzionatzeko moduarekin. Amua, beste norbaiten omenaldira gonbidatu zituztenekoa izan zen baina bertaratu ostean eta ikusita hantxe bildu ginen pertsonok jatorri amankomun bat partekatzen genuela; laster jakin zuten biek zeozer berezia egosten ari zela han.

Eurekin zerikusia zuen zeozer berezia zetorrela, alegia.

Maritxari, segituan piztu zitzaion irribarre pikaro bat *hemen zeozer prestatzen ari dek* aurpegiratzen zigun bitartean, barre-argaren artean. Julian bere kasa agertu eta iritsitakoan, zur eta lur gelditu ostean; *ai,ai,aiiii hemen enboscada bat zetorrek* esanez zuzendu zitzaigun. Hark ere, irribarrea ezin ezkutaturik zeraman ahoan.

Multzo txikietan eurekin kortesiazko hizketaldietan jardun ostean, damutu baino lehen Udaletxeko arkupeetara pasa arazi genituen, eta gu denok, arkupe guztia betetzeko moduan barreiatu ginen. Tartean, senideak, lagunak, militantziako kideak... eta udaletxeko goi-karguak, tartean Aizpea Otaegi alkatea edo Itziar Ostolaza, Berdintasun eta Hezkuntza saileko zinegotzia. Guztiak ere, zer gertatuko zenaren esperoan.

Ibilbide luze batek ekarri zituen gure protagonistak arkupe haietara. Euren etxeetatik metro gutxi batzutara egonagatik, hamarkada batzuk iraun dituen ibilbideari lotutako bizipen eta esperientziak izan dituztelako errepide.

JOXE LUIX MARITXALAR, HERRIGINTZARI HITZAK JARTZEN

Jose Luis Maritxalar Labandibar (Errenteria-Orereta, 1950), errenteriar peto-petoa dugu, urte batzuk gutxiago ditugunontzat, *Zentenarioa* edo Zumardiko kioskoa bezalako totem bat; beti present egon den erreferente bat gure bizitzetan.

Lanbide Heziketa ikasi ostean, lehenik taller txiki batean egin zuen lan geroxeago Lesakako *Laminaciones* enpresa entzutetsuan hasi zelarik. Berak dion moduan, hainbat hamarkadatan zehar leku berean jardun eta gero, bere enpresari *izen mordo bat aldatzen ikusi dizkiot, beti berdina izan den arren: Laminaciones, Aceralia, Arcelor Mittal...* “Maritxa” beti ezagutu izan dugu kaleari atxikia, politikoki beti pertsona konprometitua izan baita, ezker abertzalearen inguruan beti ere. Bere enpresako jarduna ardatz hartuta, langile mugimenduan egin zituen bere lehen pausu politikoak, sindikalismoaren munduan eta langileen eskubideen defentsan. Lehen garai haietan, bere ondoan izan zuen beste

herrikide esanguratsu bat, Joxe Luix Zabala dugu, berekin batera eta beste zenbait kideren laguntzaz Xenpelar Bertso Eskola sortuko zutena 1984. urtean.

Langile mugimenduetan urte asko eman ostean, bere bizitzan beste etapa bat zabaldu behar zuela-eta, euskararen eta kultur gintzaren munduari atxiki zitzaion urte batzuk beranduago. Euskararen aldeko militantzian buru-belarri aritua da urte guzti hauetan, eta Lau Haizetara Euskara Elkarteko sortzaileetako bat dugu berau ere.

Bertute asko aipatu ditzakegu Maritxaren inguruan baina baten bat aipatzekotan, jendearekin enpatizatzeke duen gaitasuna azpimarratuko genuke. Maritxak beti zapaldu izan du kalea eta horrek, ideologia eta jatorri ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera eman dio. Hitzuna dugu gure protagonista baina jendea entzutea gustuko duen hitzun mota da. Harekin orduak eta orduak hizketan egon zitezke mila gauzetaz eztabaidatuz, ez zarelako aspertuko. Bere ahoskera goxo eta amultsuan, bere pentsatzeko era tinko eta irmoa ezkututzen da, kolektiboaren balioetan sinisten duelako Joxe Luixek. Bere mundu ikuskera txertatuko dizu bere esaldi bakoitzean, "Maritxa"-rentzat, bizitzea eta norberaren bizitzeko modua, politika egiteko era bat delako. Aitorpena, jaso zuen makilan hala agertzen da idatzita: *Herriak, esker onez*. Eta jaso zuen oroigarriak ere, "Maritxa"-ren figuraren izana argitzen laguntzen du: *Gu gaituzu gorputza, zu zaitugu bihotza*.

JULIAN ALBISTUR, HITZEN INGENIARIA

Julian Albistur Aranburu (Hernani, 1950), Hernanitik Ereñotzura bidean dagoen Epele auzotik Errenteriarra etorri eta bertan ezkondu zen 70. hamarkadako erdialdera. Baserrian jaioa eta frankismo garaiko *piper potoaren* menpean hezia, euskararen aldeko atxikimendu izugarria erakutsi izan du bere bizitza osoan zehar.



Julian deskribatzeko, *baserritar ilustratu* esamoldea pare parera datorkiola esan liteke. Sustrai umiletatik abiatuta, goi-mailako ikasketak izatera iritsi da bere merituari esker hainbatetan lana eta ikasketak uztartuz; bere lan jardun nagusia ingeniarietza industrialaren alorrean garatu delarik.

Euskara eta batez ere, ikastolak izan dira bere militantziaren ardatzak. Orereta ikastolan, bertan ikasi izan duten bere bi seme-alaben guraso modura, milaka ordu sartutakoa da bertako Gida Batzordean, kudeaketaren alorrean bolondres gisara beti ere. Horrekin batera, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko Talde Bateragilean jardun zen urte mordo batean, ikastolen mugimenduan erabat inplikaturik. Ikastolako zenbat lan eraman ote dituen Julianek etxera, ordu txikietan aurrera atera dituenak bere kabuz. Azpimarratzekoa da,



Bertso-eskolako gazteen Aurrekuaren eskaintza.

Itziar Ostolaza udaleko ordezkaria, protagonistei euren ibilbidea eskertzen.





▲
Bertso-eskolako ikasleek, aurrekua amaitu ostean, protagonistek txalotzen dituztela.

bestalde, Ereintza Elkartearekin betidanik mantendu izan duen harreman sakona, Santa Agedako norbanakoei omenezko bertsoak eginaz edo Xenpelar sarian epaile edo idazkari jardunean.

1984ean bere bizitza markatuko zuen anekdota bizi izan zuen, gerora bertso laritzara are eta gehiago hurbilduko zuena: bere Orereta Ikastola kuttunak kilometroak antolatu behar zituela eta, bere izena proposatu zuten kantuarren letra egiteko eta noski, Julianek erronka onartu. Bertsozale porrokatua izaki txikitatik (*Txirritazalea* erabat, Ereñotzun hura kantari ikusitakoa delarik) letra eder bat irudikatu eta idazteko gai izan zen, urte batzuk ditugunok oraindik guztiz ahaztu ez duguna.

Geroago, 90. hamarkadan ikastolei publikazioerako gonbitea luzatu zitzaizkionean, Julian oraindik ikastolako ardura postuetan harrapatu zuen aferak eta hark sarri gogora arazi izan digun moduan, *urte gogor eta gatazkatsuak izan ziren, tentsio handikoak* euskal gizartean islatu ziren bi sentibilitateen artean. Urte batzuk geroago, eta seme-alabak jada koxkortuak zituela, ikastolako ziklo hura amaitutzat eman eta bertso eskolara zuzendu zituen indarrak, bertan antolakuntza eta administrazio lanak aurrera eramanez.

Julian zerbait izan bada, efizientzia izan da. Bertso eskolako paperak eramaten onena, zenbaki eta aurrekontuetan murgilduta beti ere. Hortaz aparte, bertso-jartzaile paregabea, hamarnaka sari irabazitakoa eta errekor xeble baten jabea: bere herriko Zapirain Anaiak bertso-paper lehiaketan, urtero hutsik egin gabe parte hartu duen lehiakide bakarra dela, tartean sari batzuk eramanez dituelarik. Foru plazako Xenpelarren eskulturaren sustatzaile nagusia da, 2014ko urtarrilean inauguratu zena, Gotzon Huegun eskultoreak irabazi baitzuen lehiaketa publiko baten ostean. Aurretik, 2011. urtean “Dozenaka sortuak” bertso-jarriz osatutako liburua argitaratu zuen, bizi izan dituen garai ezberdinen kronista bilakatu delarik.

Julian gainera, informazio iturri agortezina da: bertso munduko aitzinako anekdotak edo bera jaio zeneko baseri inguruko xeblekeriak kontatzen aparta da. Bere hitzen jarduerari, ingeniariaren teknika atxiki dio. Pertsona metodikoa eta langilea, itzalpean jardutea gustuko izan duena betidanik, protagonismo eta fokoetatik urruti; beti ere. Jaso zuen makilak ere, bertso eskolaren esker ona adierazten du, hitz gutxi baina esanguratsuen bidez: *Bertso eskolak, esker onez*.

BIDEGURUTZEAK ELKARTUAK

Azkenik, 90. hamarkadaren bukaera aldera elkartu zituen bizitzak “Maritxa” eta Julian. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, 1999. urtean herri arteko lehiaketa informal bat antolatu zuen, hain *bertsolari* edo ordurarte, plazara salto egitera ausartu ez ziren bertsolariak argira ateratzeko asmoz. Epaimahaia bera ere informala zen, herrietako bertsozalez osatua; non publikoak ere bere bozka emateko aukera zuen. Saio informalak ziren eta lehia bera ere, beste modu batekoa zen. Baina herri guztiek nahi izaten zuten aurrera egin txapelketan.

Txapelketa haren gerizpean, Errenteria-Orereta eta inguru-tako gazte talde bat

bertsotan jardutera animatu zen eta haiek entrenatzeko aitzakian, I. Txantxangorri txapelketa ospatu zen Zamalbiden, hurrengo hamarkadan zehar auzoz auzo ibiltari ospatu zena bertsozaletasuna herrian sustatzeko asmoz. Taldearen buru, esan beharrik ez dagoen arren, besteak beste “Maritxa” eta Julian nekaezinak jardun ziren. Ondorengo urte guztietan, hortxe jardun dira gure protagonistak itzalpean gogor lanean, bertsolaritzak herrian indarra izan dezan.

Txapelketa hark, bidegurutze bat ekarri zuen bertso eskolara. Gutako asko, Julian eta “Maritxa”-k etengabe ikatza bota zioten trenera igo ginen modu batera zein bestera eta ondoren, hurrengo belaunaldietan bertso eta orohar, kultura arloan gauza esanguratsuak egin dituzten sortzaile asko erditu ditu bertso eskolak.

Lehendik ordea, artean ziurrenik oraindik elkar ezagutzen ez zutelarik, Xabier Amurizak 80. hamarkadan marraztu zuen bidegurutzearan elkartuak ziren jada gure bi protagonistak: bertsotan ikasi zitekeenaren teoriaren jarraitzaile sutsuak izan ziren biak, ideia hori bertso munduko hainbat sektoretan oraindik zalantzan jartzen zenean. Gure bi protagonistek, etorkizuna aurreikusten jakin zuten.

Julian eta “Maritxa”-k bi eskola ezberdinetatik jaso zuten bertsolaritza: Julianek, auzoan eta inguruan bertan, bertsolariak ikusi eta entzuteko parada izan zuten eta baserritarra izaki, ahozkotasanaren bidez dexente jasotakoa izango da seguruenik.

“Maritxa”, kalekumeagoa izanik, agian ahozkotasan guzti hori etxetik hainbeste jaso gabe, jakinminak eta senak aginduta egin zuen bertsolaritzarako bide hura. Soilik motibo horren bai-

Protagonistek hartu zuten hitza ondoren, eta Maritxak hitza hartzeko aukera aitortu zaidalako pozik azaldu zen, beste zenbaitek ere merezi arren, aukera bera eduki ez dutela iradokiz. Amaitzeko, Julianek bertso bat bota zuen bat batean eta argazkien ondoren, denok jatetxera joan ginen bazkaltzera.

tan irudikatu ditzakegu Joxe Luix Zabala eta “Maritxa” 1984ean elkartzen zireneko bilerak bertsolaritzari buruz hitz egiteko asmoz. Bertan, zer zen errima, nola errimatzen den, bertsoaren barne-arauak... guzti horiek zer izan zitezkeen batak besteari galdetu eta elkarren artean partekatuta lortu zuten bertso eskola bat erdalgun batean martxan jartzea.

AITORTZA, AMAITZEKO

Hitzen arkupean utzi zaitugu lehenago, irakurle. Hortik aurrerakoak, argazkiek erakusten dute ongien. Anjel Mari Elkano Orereta Ikastolako irakasleak (sinbolikoki, bi protagonistak uztartzen zituenak bere ikastolako eta kaleko jardueragatik) gidatu zuen aitortza xume hori, Xenpelar bertso eskolako bertsolariak jardun zirelarik sentimenduei hitzak jartzen. Tartean, Andoitz Anzizar trikitilari trebeak “Izarren hautsa” pieza eskaini zigun, molde zaharrear. Ondoren, Xabier Vesga Udal Txistulari Bandako zuzendariak maisuki berak ohi duen moduan, espresuki sortutako pieza berezi bat jo zien omenduei. Bere laguntzaz, ondoren bertso eskolako gazteek agurra dantzatu zieten eta oroigarri bana jaso zuten omenduek.

Protagonistek hartu zuten hitza ondoren, eta Maritxak hitza hartzeko aukera aitortu zaidalako pozik azaldu zen, beste zenbaitek ere merezi arren, aukera bera eduki ez dutela iradokiz. Amaitzeko, Julianek bertso bat bota zuen bat batean eta argazkien ondoren, denok jatetxera joan ginen bazkaltzera, gure bi protagonistak bertso eskolako pin-a paparrean zutela; anekdota zaharrekin etorkizun berri bat marrazteko asmoz.

Maritxa eta Julian, jubilatu bai baina inork ez zaitzatela erretiratu, gure artean behar zaituztegu eta!

JULIAN ALBISTURREN ESKERTZA BERTSOA.

DOINUA:
Aita izenak (X. Amuriza)

*Pentsatzen nuen izango zela
martxo aldera San Josez
gaur Maritxaren omenaldira
hona etorri naiz pozez.
Ni apal xamar nabil errenka
hanka luzez, hanka motzez
urtarrileko merkealdian
“dos por uno” pack-an lotsez
omenaldirik ez nuen behar
baina milesker bihotzez. (BIS)*



▲
Haurren begirada
harritua. Foru plaza,
1979. Ereintza Elkartea.

EREINTZA ETA EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA **(1979-2016)**

Ereintza Elkartea Eskulangintza saila

Euskal Herriko Eskulangintza Azoka Ereintza elkartearen gogoetarako barne prozesu baten ondorioz sortu zen. Izan ere, une hartan, Trantsizio politikoaren garaian, talde militante ugari sortu ziren, eta talde horietan sartu ziren ordura arte beren konpromiso soziala diktaturak asoziazionismoari utzitako esparru txikian garatu zuten pertsona asko. Testuinguru hartan, bere gisako elkarteek bete behar zuten eremu sozialari buruzko hausnarketa

egin zuen Ereintza elkarteak, eta jada 1977rako, zuzendaritzak «Elkartearen berrazterketa orokorra» egiteko beharra planteatu zuen.

Egoera berean zeuden herrialdeko beste erakunde asko eta asko. Hala, 1977ko azaroan Gipuzkoako elkartearen topaketa bat egitera bultzatu genuen Azpeitian, helburutzat harturik «Euskal Gizartearen normalizazioranzko joeraren ondorioz elkarteetan gertatuko den eta jada gertatzen ari den krisia aztertzea. Gure jardute eremua bilatzea, euskal kulturari ekarpena egingo dioten jardueren bidez eta errepikapen hutsetatik aldenduz. Jarduera horien koordinazioa».

Erronka hura onartuta, hurbil aurkitu genuen oinarri gisa balio zigun eredu bikain bat: Musikaste, 1973an abian jarri zenetik euskal musikaren aste garrantzitsuena bihurtu zena, eta, nola ez, Durangoko Liburu eta Disko Azoka, oso finkatuta zegoena

ordurako. Berrikuntzako testuinguru hartan sortu genuen Euskal Herriko Eskulangintza Azoka, 1979an, Ereintza elkarteak euskal kultura herrikoari, oro har, eta bereziki Errenteriari egin nahi zion ekarpen gisa.

Hautu arrazoitua

Zergatik eskulangintza? Erantzuna argia izan daiteke gaur egun, baina une hartan ez zegoen hain argi, eta ongi azaldu behar izan genuen hautua. Eskulangintza suspertzearen alde apustu egin genuen, haren balioa handitzearen alde eta lan egiteko modu ez-mekanzatu haiek XX. mendearen azken laurdeneko testuinguruan zer suposatzen zuten ezagutzera ematearen alde; izan ere, apustu horrek Errenteriako industrializazioak eta hazkunde demografiko ikaragarriak apurtutako lotura bat berrezartzea zekarrela uste genuen. Hau da, bertako memoria historikoaren parte nabarmen bat berreskuratu nahi genuen, zeina lotuta baitzegoen bazterrean uzten joandako ekoizpen modu eta bizimoduekin, sormenezko ondare herrikoiarekin. Azken finean, eskulangintzarekin iraganeko eta etorkizuneko nortasuna eguneratzen genuen Errenteriarentzat, eta horrek balio kultural bat ekarriko zuen bizitza komunitarioarentzat.

Asmoak onak baziren ere, ez zen erraza izan praktikan jartzea. Oso erreferentzia gutxi geneuzkan martxan jartzeko, bat bera ere ez, egia esateko. Aurrekari bakarra, interesgarria eta itxaropentsua, gogoan zuten oraindik errenteriarrek: 1975eko Euskal Kulturaren Astea, zeinaren baitan egin baitzen “Euskal Eskulangintza Bizidunen Erakusketa” bat. Garai hartan, artisauen sektorea ez zegoen talde edo kolektibo batean bilduta, eta, hortaz, ez zegoen ez katalogorik, ez profesionalen indizerik, ezta harremanetan jartzeko eta kontratatzeke bulego edo gunerik ere; informazio iturri bakarra Juan Garmendia Larrañaga etnografo tolosarrak *Euskal esku-langintza / Artesanía vasca* (Añamendi argitaletxea, 1970-1975)

izenburupean argitaratuta zituen bost liburuak izan ziren. Haiek besapean hartuta, ehunka kilometro egin genituen herrialdeko herri eta hirietan barrena, eta banan-banan “arrantzatu” genituen lehenengo edizioan parte hartu zuten hamasei artisauek. Pasarte honek ongi islatzen du garai hartako giroa: errenteriar gazte batzuk euren lantokian agertu eta euren lana jendaurrean erakusteko gonbidapena egiteagatik harrituta, beterano batzuek uste izan zuten zergaikuskariak ginela, edo baita hazi saltzaileak ere (Ereintza izena tarteko). Beste garai batzuk ziren noski.

1979ko maiatzeko lehen asteburuan, azkenean, Foru Plaza jendez bete zen, eta aurrez aurre ikusi ahal izan zuten –kasu askotan bere bizitzan lehen aldiz- nola

Francisco Larretxea
kaikugilea. Foru plaza,
1979. Ereintza Elkarte.



zizelkatzen zen uztarri bat, nola modelatzen zen zeramika, nola josten zen espartin bat edo nola prestatzen ziren taloak. Bertako musika tresnen entzunaldi bat ere antolatu genuen, eta kale animazioa ere izan zen. Arrakastak gure aurreikuspen onenak ere gainditu zituen, eta argi geratu zen hark ezin zuela izan goiz bateko lorea. Hala hasi zen etapa luze bat, non Erreterriako Azoka Euskal Herriko azoka zaharrena bezala finkatuko zen.

Lehen urteetan, Azokak izaera etnografiko-kulturala izan zuen, nolabait erakargarria gerta zedin bi ikusle motarentzat: adinekoiei, asko jatorri landatarrekoak, gogora ekartzen zien beste garai bat, non lanbide zaharrak nagusi ziren gizartean; publiko hiritarra, aldiz, ia ezagutzen ez zuen mundu bat ezagutzen hasi zen, bere egiten, eta sentiberatasuna garatu zuen lanketa berdingabeko lan haiekiko. Hori guztia mesedegarria izan zen Azokak arrakasta lor zezan berehala, eta, era berean, nolabaiteko bultzada izan zen eskulangintzaren sektorearentzat.

Dena den, Ereintza Elkartean berehala konturatu ginen akatsa izango zela gure Azoka alderdi folklorikora eta jai girora mugatzea, anekdotikoa edo aldiz kakoa izatea. Lagundu egin nahi bagenion eskulangintzari gizartean bere tokia aurkitzen, hau da, sona eta errentagarritasuna lortzen, ez zen nahikoa iraganeko kultura modu batzuk testigantzazko ikuspegi batetik ezagutzera ematea; aitzitik, aurrera egin behar genuen gure asmoetan. Hori sinetsita, helburutzat ezarri genuen esparru hori: Azoka egokitzea eta handiaraztea, eskulangintzari bultzada emateko plataforma izan zedin eta artisautzari testuinguru sozioekonomiko berriaren hedatzen lagundu ziezaion garaiko eskakizunei erantzunez.

Hori are beharrezkoagoa izango zen hurrengo urteetan, azoka eta merkatu txikien ikaragarritzko *booma* izan baitzen herrialde osoan; azoka horiek beste jarduera batzuen

Erreterriako Azoka esanahi soziala hartzen joan zen: artisauen arteko topagune eta harremangune bihurtu zen, baina baita artisauen eta ikusleen arteko topagune ere, jendeak haien lana ezagutu baitzezakeen produktuak bertan egiten zirelako.

baitan osagarri gisa eta kalea girotzeko antolatzen ziren, edo irizpide zehazturik gabe. Artisautzaren mundua ezagutarazteko balio bazuten ere, eta lantegi batzuek bizirik irauteko lagungarriak izan arren, bistakoa zirudien epe luzera eskulangintzaren irudia eta balio soziala pobretuko zutela.

Horren aurrean, Erreterriako Azoka esanahi soziala hartzen joan zen: artisauen arteko topagune eta harremangune bihurtu zen, baina baita artisauen eta ikusleen arteko topagune ere, jendeak haien lana ezagutu baitzezakeen produktuak bertan egiten zirelako. Era berean, zuzeneko nahiz zeharkako salerosketa bidea ere bazen, eta, hortaz, errentagarritasun ekonomikoa zuen. Eta, azkenik, sektorearen errealitatea aztertu eta ezagutzeko gune ere bihurtu zen. Hortxe kokatu behar da hasiera-hasieratik katalogoak eta gidak argitaratzeko egin genuen ahalegina, zeinaren emaitza izan baitzen lanbideka sailkatutako zentsu oso bat (2003an argitaratua, *Euskal Herriko Eskulangintza Azoka / Feria de Artesanía del País Vasco. Erreterria, 1979-2003* izeneko liburukian).

Erreterria, euskal eskulangintzaren hiriburua

Adierazi dugunez, hasieran gu geu joaten ginen lantegietara, geure burua aurkeztu eta artisauek gonbidatzera, baina lan hori erraztuz joan zen Azokaren izena hedatuz joan zen heinean, eta udaberriro antolatzen genuen azoka erreferentziazkoa bilakatu zen sektorearekin harremanetan zegoen ororentzat. Hala, Erreterriak ospea lortu zuen “euskal eskulangintzaren hiriburu” gisa iristeraino.

Ezin aipatu gabe utzi gure ahalegina babestu zuten erakundeak. Babesle leialak izan dira Gipuzkoako Foru Aldundia, Erreterriako Udala, Kutxa izenarekin bat egin zuten bi Aurrezki Kutxek eta, noizbehinka, Eusko Jaurlaritza. Erakunde horiei erantsi behar zaizkie modu batera edo bestera era

partikularrean lagundu diguten pertsona guztiak. Horiek gabe ezin izango genuen dena egin: erakusmahaiak muntatu, hesiak ipini, kamioiak deskargatu, egitarauak prestatu eta zabaldu, kartelak itsatsi... Eta behin Azoka amaituta, agiriak bete, gastuak justifikatu, ordainketak egin, etab. Baina garai hartan gehiena horrela egiten zen, modu boluntarioan eta eskuzabaltasun handiz, ordain bakartzat hartuta ongi egindako lanaren emaitzak zekarren gogobetetasuna.

Eskulangintza Azokaren hogeita hemeretzi edizioen mapa hirian izan zituen kokapen ugariak markatuta osa liteke. Lehenengoa aipatu dugu jada: Foru Plaza. Horren atzetik etorri ziren Gamon Zumardia, Manta Fabrikaren orubea, Niessen fabrika zaharra (1984tik 1997ra), Xenpelar Aretoa (erakusketa bereziak antolatu baitziren bertan), udal pilotalekua eta karpa osagarri bat Vicente Elizegi kalean eta, azkenik,

Azokaren ikuspegi orokorra. Foru plaza, 1980. Ereintza Elkartea



2004az geroztik, Udal merkatu zaharrean egun Merkatuzar Kultur Gunea dena. Lekualdaketa horietan zerikusia izan zuen azokan parte hartu nahi zuten profesionalen eskariak benetako edukiera gainditzen zutela ia beti eta, halaber, ideia berriak sortzen zirela eta horiek gauzatzeko moduak aurkitu behar izaten genituela, erakusketa eremu egokiak bilatuz.

Hainbat faktorek azaltzen dute Azokaren arrakasta, urtez urte mantendu zena epe luzean. Lehenengoa, antolakuntza ona, alderdi oso balioetsia, bai parte hartzaileen aldetik, baita ikusleen aldetik ere. Antolakuntzarako gaitasunik gabe, ezinezkoa izango zatekeen hasieran aste-buru baterako pentsatutako egitaraua bost egunekoa ere izatera iristea, maiatzaren 1eko zubia baliatuta.

Bigarren faktorea, urteroko atal tematikoak aukeratzean asmatu izana. Batzuetan



irizpide historikoak erabili izan genituen, hala nola ehungintzaren kasuan –hiriaren iragana gogora ekarriz –, gozogintza tradizionalaren kasuan edo itsas eskulangintzaren kasuan; beste batzuetan produktu tradizionalak nabarmendu genituen, eltzegintza eta zeramika, burdina, lurra eta antzekoak, zura edo beira, besteak beste; eta beste batzuetan ohikoak ez ziren beste modalitate batzuk ekarri genituen Azokara, hala nola sukaldaritza eta etxeko mundua, Iparraldeko artisautza, modelismoa edo dekorazio modernoa. Zehaztapen tematiko horiek aniztasun interesgarria ematen zioten egitarauari, eta adituen eskuen bitartez egiten genuen, gainera.

Guztira 679 lantegi ezberdinek erakutsi izan dute beren lana Errenerian hogeita hemeretzi maiatz horietan. Euskal Herriko txoko guztietatik etorriak, eta batzuk baita kanpotik ere. 2008an hartu genuen beste lurralde batzuetako profesionalak gonbidatzeko erabakia, berrikuntzaren alde apustu egin nahian. Eta horrekin heldu genion beste arrakasta faktore bat izan daitekeenari: ikertzaileei eta sortzaile originalenei ikusgaitasuna emateko genuen interesari, alegia. Horren erakusle ziren diziplina anitzeko sorkuntza tailer berritzaileak, eta ildo beretik zihoazen omenaldi eta aitorten publikoak, kalitate oneneko produktuak edo erakusmahai estetikoak sarituz egindako apustuak.

Bisitari kopuruak eta ikusleek artisauen lanari egiten zioten harrera onak ematen zioten erramua gure ahaleginari. Edizio berean hogeit mila milatik gora bisitari jasotzera iritsi zen Azoka (berrogei mila biztanleko hiri batean). Ondorioz, Erreneriako Azoka salmenta bolumen handienekoa zen, euskal geografian egiten ziren guztien artean, eta salmenta horiek zuzenekoak edo enkargu bidezkoak izan zitezkeen, eta harreman horiek emaitzak ematen zituzten hilabetetean eta baita urteetan ere.

*Guztira
679 lantegi
ezberdinek
erakutsi
izan dute
beren lana
Errenerian
hogeita
hemeretzi
maiatz
horietan.
Euskal
Herriko txoko
guztietatik
etorriak, eta
batzuk baita
kanpotik ere.*

Ibilbidearen azterketa

Honaino esandakoarekin, Erreneriako Azokak egindako ekarpena labur dezakegu orain. Ibilbidea aztertuta, ondorio hauek ateratu ditzakegu:

- Eskulangintza ezagutzera ematen eta jendea sentsibilizatzen lagundu du, hau da, artisautza berezko balio kultural gisa ulertzen, balioesten eta integratzen.
- Hasiera-hasieratik lortu nahi izan genuen artisauen lana ekonomikoki errentagarria izatea, eta lan horrek bere baitan gordetzen duela ondare bat aitortzea, sustrai historikoak eta balio etnografikoa dituzten lan egiteko eta sortzeko moduetan adierazten dena. Ildo horretan, Erreneriako Azokak ekarpena egin dio artisautzak kalitatezko produktu gisa lortu duen aintzatespenari.
- Urteroko topaketatik harago, antolakuntzak etengabeko laguntza eman eta inplikazio aktiboa izan zuen profesionalen arazoetan. Eskulangintzako hainbat diziplinaren arteko lankidetzak sustatu nahi izan genuen, harreman berriak sortu eta sinergiak bultzatu. 1982an, foro bat antolatu genuen, euskal artisauen lehenengo elkarte bat eratzeke asmoz. Une hartan ez zen aurrera ateratu, baina foro hura gerora sortzen joan ziren artisau-kolektiboen abiapuntua izan zela pentsatu nahi dugu.
- Eskulangintzaren alorreko indarren koordinazioa sustatzeaz gainera, ahal izan genuen neurrian zubi lanak egin genituen erakundeekiko harremanetarako eta beste lanbide batzuekiko elkarrikeretarako (arkitektoak, dekoratzaileak, aparejadoreak, merkatariak, zerbitzuen sektorea, etab.).
- Aldi berean, eta hasieratik, Azokak eskulangintzaren arloko ikertzaileen eta adituen aholkularitza eta laguntza desinteresatua jaso zuen.



Merkatuzar Gunea, azken kokapenaren leku, 2016. Ereintza Elkarte.

- Horiek oinarri, Ereintzak etengabeko gogoeta bultzatu du eskulangintzaren orainari eta etorkizunari buruz, eta haren bilakaera nahiz modernizazioa sustatu ditu, bai lan prozedurei dagokienez, baita kudeaketari dagokionez ere.
- Asmo horrekin, sektorearen beharrak aztertzeke jardunaldiak eta mahai inguruak antolatu, eta ikerkuntza, esperimentazioa eta diseinua sustatzeko sariketak deitu genituen. Azken batean, Azoka gune dinamizatzailea izan da.
- Sektoreak azken hamarkadetako aldaketa sozial eta kulturalekin batera aurrera egin zezan, diseinatzaileen eta artisauen arteko lankidetzaz ahalbidetu genuen, XXI. mendeko artisautzaren aukerak zabaltzeko. Horri esker, Erreterian sortzen ikusi ditugu profesional belaunaldi berriak, berrikuntzan, kalitatean eta diseinuan oinarritutako produktuen sortzaileak.
- Labur esanda, euskal eskulangintzaren, artisauen eta merkatuaren bilakaeraren lekuko eta bidelagun izan gara ia berrogei urtean zehar.

Horrek guztiak ospea eman dio Ereintza elkarteari, zalantzarik gabe, baina pentsatu nahi dugu batez ere Erreteriarako bizitza kulturala aberastu duela urte horietan guztietan.

Sari onena

Ereintza Elkarteak abian jarri zuenean Eskulangintza Azoka, 1979an, ez genekien noraino eramango gintuen “abentura” hark. Eskarmenturik ezean, gogo handiz jardun genuen, eta bitartekoen gabeziari kemenez eta ahaleginez erantzun genion. Denborak erakutsi zigun bidea, eta hasierako ideia lausoak gorpuzten joan ziren urteen poderioz, profesionalen beharrak zehaztuz eta aukera berriak irekiz zihoazen heinean. Horrekin esan nahi dugu Azokarentzat ez zela ez apeta bat, ezta hainbat aukeraren artean egindako hautu bat ere sektorearen aldaketetara eta bilakaerara egokitzea; aitzitik, ezinbestean egin beharreko zerbait zen, gure oinarritzko helburua lortu nahi bagenuen, hots: artisautza sustatzea, baina ez soilik garai bateko lan moduen berregite nostalgiko gisa, baizik eta aukera ugari eskaintzen zituen lan espezialitate gisa eta gure bizilagun nahiz herrikideen artean ezagutzera eman eta partekatu nahi genituen balio batzuen gordailu gisa.

Hala, antolakuntzarentzat betebeharrak izan zen, lehen egunetik, zer egin nahi zuen behin eta berriz pentsatzea eta bere jarduna hausnartzea. “Artisautzaren irtenbidea ez da etorriko soilik kulturaren eremutik, egiturazko planteamendu egoki batetik baizik”, aipatzen genuen laurogeiko hamarkadan *Oarso* urtekari honetako orrietan. Argi adierazi nahi genuen Azoka akuilua izan zitekeela sektorearentzat, baita erreferente ere, baina haren ikusgaitasuna eta sakoneko irtenbideak guk elkarte gisa eskaini genezakeenetik harago zeudela. Denborak berretsi egin zuen hori.

XXI. mendearen hastapenetan, argi zegoen garai berriek eskakizun berriak ekarriko

zituztela; oinarriak, ideiak eta pertsonak berri beharra zegoen. Ondorioz, 2007-2008 aldirian, Ereintzak hogeita hamar urteak beteta zituen Erretereriako Azokaren orainari eta etorkizunari buruzko gogoeta prozesu bati ekin zion. Eskulangintzak “presentzia jarraitua” izan behar zuela antzematen genuen, horrek protagonismo soziala emango baitzion noizbehinkako ekintzetatik harago, eta presentzia horrek funtsezko hainbat kontzeptu izan behar zituen oinarrian: “kalitatea”, “berrikuntza”, “ikerkuntza” eta “enpresa”. Horrek berekin zekarren sektorearen erabateko profesionalizazioa eta, ondorioz, baita Azokarena ere; bide berriak arakatu eta lerro berritzaileak urratzeko gai izango zen jende berria behar zen. Behar hori ideia batean zehazten joan zen: Erreterian artisautzaren erreferentziatzko zentro bat ezartzea, asmo handiko egitasmo hori bideratzeko gai izango zena.

Horraingo iritsita, 2017an egin zen Azokaren azken edizioa. Etapa bati amaiera eman zion Ereintza Elkarteak, eta beste esku batzuetan utzi zituen eskulangintzaren etorkizuna eta presentzia Erreterian.

Udalak interesa zuen, noski, hogeita hamar urtetik gorako ibilbide horrek sortutako ondarea sendotzeko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzak eskatu zuen. Bi erakundeek, laguntza publikoa optimizatze aldera, Gabiltza eta Lur Kolektiboa Gipuzkoako sektoreko elkarte nagusiek planteatutako beste proposamen batzuekin bat egitera animatu gintuzten.

Horren guztiaren ondorioz, 2011ko apirilean Artiola –Artisautzaren Gunea, Eskulangintzaren Erreferentziatzko Zentroa– sortu zen, Erretereriako Merkatuzar eraikinean kokatua eta artisauren sektore berak kudeatua, Ereintzaren eta sare asoziatiboaren laguntzarekin. Oarsoaldea Garapen Agentziak ere bere laguntza eskaini zuen. Ez dugu hemen deskribatuko Artiolak izan duen ibilbidea. Nahikoa da esatea bere gain hartu zituela aipatutako gogoeta prozesuaren amaieran Ereintzak planteatutako lehentasunak eta helburuak. Ageriko emaitzetako bi izan dira eskulangintza arlo gisa txertatzea Erren-

teriako Plan Estrategiko 2025ean, Habian Fabrika Kreaktiboaren proiektua martxan jarrita Torrekuan, eta hiriko gune historikoan artisautza lantegiak irekitzeko plana.

Muga material eta antolakuntzazko jabetuta, eta kudeaketa profesionalizatzeko beharraz ohartuta, Aldundiarekin eta Udalarekin adostu zen proiektuaren jarraitutasuna bi erakundeen esku uztea, hedadura handiagoko egitura berri baten baitan, zeinak barne hartuko zuen Sorkuntza Lanbideen Gune baten sorrera Agustinetan, artisautza arloa ere hartuko duena.

Horraingo iritsita, 2017an egin zen Azokaren azken edizioa. Etapa bati amaiera eman zion Ereintza Elkarteak, eta beste esku batzuetan utzi zituen eskulangintzaren etorkizuna eta presentzia Erreterian. Baina gure lana ez da amaitu; une honetan gure artxiboen katalogazioan eta digitalizazioan murgilduta gaude, dagokionean herritarren eta erakundeen esku egon daitezen. Eta jakintsuaren moduan, honako hau esan genezake: “Seguru asko, beste batzuek hobeto egingo zuten, baina guk egin egin dugu”. Eta gure belaunaldikoentzat hori izan da, eta izango da beti, ahalegin baten sari onena.

Erakusmahaien bilakaera.



Jon Bagüés

MUSIKASTE y ERESBIL

VISTO A DISTANCIA

El Consejo de Redacción de esta revista OARSO, con motivo del 700 aniversario que se conmemora este año 2020 quiere aportar una visión comparativa de algunas de las realidades de Errenteria contrastando el artículo más antiguo de su referencia con la situación actual y perspectivas futuras.



El artículo más antiguo relacionado con MUSIKASTE vio la luz el mismo año de su primera realización, en 1973, un año antes de que se pusiera en marcha el proyecto ERESBIL en 1974. Nos ha parecido oportuno incluir en esta mirada comparativa la visión desde las dos realizaciones, la semana musical y la institución que nacía con el propósito inicial de dotarla de contenidos.

En esta distancia de 47 años desde esta primera publicación sobre MUSIKASTE en OARSO quisiera destacar para empezar las personas que formando parte del equipo organizador, dejaron a lo largo de los años el testigo de la semana en estas páginas, y que hoy ya no se encuentran entre nosotros.

En primer lugar el fundador, programador e ideólogo de la semana y del archivo, José Luis Ansorena. Y junto a él a los cronistas que trasladaron puntualmente la crónica de los conciertos de la semana, en primer lugar Antontxu Sainz (con el seudónimo de Isido-

▲ Primer concierto de música de vanguardia en Musikaste 1973 a cargo de Diabolus in Musica de Barcelona, Salón Reina Victoria.

ro Echeverría, desde 1973 hasta 1995); y posteriormente José Manuel Mitxelena (desde 1996 hasta el año 2003). En ellos quiero representar la entrega y el entusiasmo de los componentes de la Coral Andra Mari en buena parte de la andadura de la Semana MUSIKASTE así como en los inicios del archivo. A partir del año 1995 el principal peso en la organización del festival lo toma ERESBIL dotado de un equipo humano permanente, siendo desde entonces coorganizado el festival entre ERESBIL y la Coral Andra Mari.

La idea central

“MUSIKASTE debía ser una feria o muestrario de la música vasca en todos sus aspectos” escribía José Luis Ansorena en 1973. ¿Se han cumplido las expectativas después de casi medio siglo? Creemos que en buena parte sí. Cada edición implica muchas ideas previas, de las cuales buena parte quedan sin poder ser abordadas por múltiples razones. Pero el esquema inicial de dedicar un día a uno de los diversos géneros de la música ha dado a



lo largo de estos años suficiente juego como para poder programar diferentes épocas, estilos y tendencias de los compositores vascos. El paso del tiempo se refleja en los estilos, lo que en un inicio se llamaba músicos vascos de vanguardia se transformó con el cambio de siglo (en 2004) a música contemporánea, se incluye el jazz o la música de cine como jornada ocasional y la música antigua se consolida en la medida de la estabilidad de intérpretes especializados. La semana sigue centrada en la programación de obras de autor, pero tienen cabida también otras músicas, urbanas, experimentales, en las que la autoría cede muchas veces el testigo al intérprete.

Los lugares también han cambiado con la transformación y el nacimiento de nuevos equipamientos culturales. En los inicios se celebraban los conciertos de cámara o de vanguardia en el hoy desaparecido Cine Reina. Posteriormente se ha utilizado asiduamente el auditorio del Centro Cultural, pero también otros recintos en función del género musical, la parroquia de la Asunción para la música de órgano y religiosa o la ermita para la música antigua, además de las plazas y soportal del Ayuntamiento utilizados por la Banda de la Asociación de Cultura Musical y la Banda Municipal de Txistularis, fieles acompañantes de MUSIKASTE en su andadura.

Los programas, las obras

“El poder de los intérpretes” destacaba como

▲ José López-Calo y José Luis Ansorena junto a las autoridades en el Salón de Plenos del Ayuntamiento en la inauguración de Musikaste 1975

A partir del año 1995 el principal peso en la organización del festival lo toma ERESBIL dotado de un equipo humano permanente, siendo desde entonces coorganizado el festival entre ERESBIL y la Coral Andra Mari.

apartado la visión de José Luis Ansorena de la resistencia de los ejecutantes de los inicios del festival en interpretar obras que no estaban en su repertorio, intentando tocar lo que ya tenían en dedos. Si ponemos esta situación en relación con la recepción de la música y el público, podríamos decir que a día de hoy se han invertido las posiciones. El público en general de los inicios de MUSIKASTE creo que era más receptivo y abierto a novedades que el de ahora, que quizás se siente más cómodo en sus gustos. Desde luego la oferta no tiene nada que ver desde el acceso a las nuevas tecnologías, lo que quizás hace que se creen y conformen nichos estéticos que no siempre son permeables.

“El día de los músicos de vanguardia concentró el mayor número de dificultades y presiones ... No se programaba lo que se deseaba, sino lo que se podía”. Esta preocupación en los inicios del festival creemos que ha sido uno de los aspectos en los que más se ha avanzado. En las primeras ediciones tuvieron que venir intérpretes de fuera, Barcelona o Madrid, para la interpretación de la nueva música creada por los compositores. El paso del tiempo ha visto pasar por Errenteria grupos especializados en la música contemporánea como el grupo Ostots, el Ensemble Kuraia, Espacio Sinkro o Xare Laborategia.

También en música de cámara o música sinfónica es evidente el gran salto cualitativo realizado en este medio siglo entre los intérpretes vascos. La consolidación de la Orquesta Sinfónica de Bilbao o la creciente calidad de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, así como la calidad de los intérpretes que surgen de las aulas de MUSIKENE permiten unas lecturas musicales de altura tanto en las obras sinfónicas como en las de cámara, con una evidente mejora en la calidad de la música de conjunto.

Pero una cosa son los intérpretes y otra el repertorio. Las obras sinfónico-corales, si dejamos de lado el género religioso de siglos

pasados, no es tan abundante en la creación de los compositores vascos, y menos aún la que tiene el texto en euskera. Sigue vigente la pregunta que se hacía José Luis Ansorena, “¿de dónde sacar cada año una obra sinfónico-coral de gran estilo, que cierre clamorosamente las jornadas de MUSIKASTE?”, aunque si hemos de ser sinceros siguen habiendo obras importantes que por su complejidad no hemos sido todavía capaces de haberlas escuchado aún en MUSIKASTE.

“En MUSIKASTE 73 tuvieron más fuerza los intérpretes que los organizadores”, el lamentito inicial se puede decir que se ha convertido en algo más equilibrado, de manera que hoy en día se puede pactar con los intérpretes buena parte de la programación contando con su complicidad para el descubrimiento de repertorios infrecuentes.

Los críticos

Es este uno de los aspectos en los que claramente hemos ido para atrás. En el primer MUSIKASTE se nos habla con nombres y apellidos de críticos de San Sebastián, Bilbao, Pamplona y Madrid, además de diversas emisoras radiofónicas. Hoy en día las artes audiovisuales, el cine, la televisión y los diferentes dispositivos electrónicos priman la imagen, quedando la música en segundo plano. El lugar que ocupa la crítica musical en los medios de comunicación ha cambiado de manera radical, en especial la relacionada con las músicas que no son de entretenimiento. Aun con todo nos resistimos a pensar que la música de los creadores musicales de nuestro tiempo no tengan cabida en el imaginario musical de nuestras nuevas generaciones.

MUSIKASTE y la investigación

“El equipo de MUSIKASTE ve en la investigación una labor típica y necesaria para el bien de la música vasca” se opinaba en 1973. Hasta el año 2012 la semana se iniciaba con una conferencia o mesa redonda sobre una personalidad, institución o tema musical permitiendo dar a conocer el fruto de las investigaciones



de los musicólogos. La cada vez menor asistencia de público debido a la gran transformación en los formatos de comunicación del conocimiento han aconsejado transferir todo lo relacionado con la investigación a otras actividades relacionadas con ERESBIL, y en especial a la colaboración con las actividades de investigación y publicación compartidas con Musikene. Por eso MUSIKASTE ha sido y pretende ser el escaparate de la actividad investigadora en el País Vasco, cumpliendo la idea de “promover la investigación durante el año y dar a conocer los resultados en las próximas jornadas”. Se sirve para ello del archivo ERESBIL para localizar y atraer intérpretes de repertorios infrecuentes de manera que hemos podido escuchar polifonías y creaciones nunca hasta entonces escuchadas de autores renacentistas como Martínez de Biz-

▲ Lorenzo Ondarra junto al organista Lorenzo Blanco en la interpretación de una obra suya en la parroquia de N^a S^a de la Asunción el año 1974.

Coro femenino de la Coral Andra Mari con cuatro Ondas Martenot en Musikaste 1980 en la parroquia de los PP. Capuchinos, hoy Iglesia de Fátima.



cargui, barrocos como Juan García de Salazar, clásicos como Joaquín de Asiain, románticos como Delphin Alard o innovadoras del siglo XX como Emiliana de Zubeldia.

El hecho de que hayan transcurrido casi cincuenta años desde el inicio de MUSIKASTE hace que la frase “se tratará de promocionar la música de compositores vascos del siglo pasado” ha convertido el siglo XIX en uno antiguo y el del XX en el actual “siglo pasado”. Debemos por lo tanto recolocar lo que es la música antigua y la actual.

El día de vanguardia, hoy jornada de música contemporánea, incluye en nuestros días dos aliados que no existían cuando inició su andadura MUSIKASTE: por una parte el Centro Superior de Música del País Vasco, MUSIKENE, que con su especialidad de composición aporta nuevas generaciones de compositores; y por otra parte MUSIKAGILEAK, la Asociación Vasco-Navarra de Compositores. Junto con ellos programa nuestro festival las nuevas creaciones musicales de los compositores vascos.

La oportunidad de los encargos como medio de obtener obras sinfónico-corales señalada por José Luis Ansorena en el primer artículo de MUSIKASTE ha quedado como una opción poco explorada. La celebración de la capitalidad cultural europea en Donostia el año 2016 permitió la petición de doce arreglos corales de melodías creadas por los cantautores miembros del colectivo *Ez dok amairu*, a cargo de doce compositores vascos. Fue un paso tímido de una cuestión que se encuentra con el permanente escollo de la financiación.

El futuro

Como ha quedado apuntado, la sociedad y los hábitos en el consumo de la cultura han cambiado mucho desde el primer Musikaste de 1973. Si alguna palabra puede significar la necesidad de toda organización para mantener su atractivo a lo largo del tiempo es flexibilidad.



▲ Festival celebrado en Musikaste 1991 en el Polideportivo de Errenteria, con la colaboración de Ereintza Dantza Taldea.

Flexibilidad en modificar la organización del esquema, de manera que si al comienzo se iniciaba la semana en un lunes para acabarla en sábado, con conciertos diarios, la experiencia ha ido dictando la conveniencia de modificar los días en función de las prácticas culturales de la población, organizando en estos momentos el festival en torno a dos fines de semana, con actividades pedagógicas entre los mismos.

Flexibilidad en abrir los géneros a todo tipo de música y de interpretaciones. Ello no significa que se tenga que perder la idea que perseguía José Luis Ansorena, en apoyar aquellas músicas, autores y obras que más dificultades tengan para poder ser interpretadas. Si MUSIKASTE pretende ser el “muestrario de la música vasca en todos sus aspectos” hay

▼ La Banda de la Asociación de Cultura Musical en la plaza de los Fueros en el Musikaste 2000.



que combinar músicas de fácil escucha con las nuevas propuestas de nuestros compositores actuales, la recuperación de músicas antiguas o el descubrimiento de músicas infrecuentes.

Los espacios también cambiarán, este mismo año se inaugurará un nuevo equipamiento cultural en la antigua fábrica Lekuona. Está por ver cómo puedan encajar en el futuro algunas de las propuestas de nuestro festival en las líneas estratégicas del Centro.

Dos palabras sobre ERESBIL

Nos hemos centrado en este artículo en la visión del festival MUSIKASTE, pero no cabe duda de que la institución que más desarrollo ha tenido ha sido el archivo ERESBIL. Nacido a consecuencia de MUSIKASTE con el propósito de reunir obras para su selección y programación, el festival ha pasado a ser una actividad del archivo, el escaparate sonoro de las obras que se recogen en el archivo, la principal difusión de las creaciones, antiguas o recientes que constituyen el tesoro creativo de la música en Euskal Herria.

ERESBIL tiene ya una plantilla consolidada que trabaja en documentar y difundir todo tipo de documentos relacionados con el desarrollo de la música en el País Vasco. Si al inicio se centró en la recopilación de las partituras de los compositores vascos, hoy ha ampliado su radio de acción, constituyendo el archivo sonoro de la música vasca, en todos sus soportes. Pretendemos relatar toda la historia de la grabación en los territorios vascos, recogiendo toda la producción, pretendemos recoger los documentos escritos, desde libros y revistas a documentos aparentemente sencillos como programas o folletos, que explican la vida musical en nuestro entorno, pretendemos no solo recoger la producción de nuestros compositores sino ser un apoyo para que puedan desarrollar libremente sus potenciales de creación. Y en este apoyo creemos que MUSIKASTE tiene todo su futuro abierto.



▲ Pirineos Jazz Orchestra el día de Jazz de Musikaste 2004 celebrado en el Centro Cultural Villa de Errenteria.



▲ Quatuor Europe en la ermita de la Magdalena, Musikaste 2018.

Finalmente MUSIKASTE nació, ha crecido y despliega su actividad desde Errenteria. Queremos también acompañar y ser parte de esa transformación que la ERRETERIA de 2020 pretende lograr apoyando las artes y las industrias de la creación. La música ha tenido a lo largo del siglo XX una importante presencia en nuestro entorno. Ojalá desarrollemos, en este siglo XXI y desde la música, las mejores capacidades de apoyar y difundir las artes en todas sus manifestaciones.



Koldokide Guraso Elkartea

MAKINA BAT TAUPADA

eskola publikoaren alde

2019ko ekainaren 2a egun berezia izan zen Erretereriako ikastetxe publikoentzat, eskualdean lehenengoz egin baitzen Euskal Eskola Publikoaren Jaia, 'Makina bat taupada' lelopean. Jende mordoia etorri zen herrira, eskola publikoaren aldeko aldarrikapen jaian parte hartzera, baina, egunaz harago, ordurainoko bidea ere garrantzitsua izan zen, hura bezain garrantzitsua, esango genuke.

Zenbait urtez ideia buruan bueltaka ibili ostean, azkenean ausartu ginen geure burua jaia antolatzeko aurkeztera. Izan ere, iruditzen zitzaigun herrian ezezaguna zela eskola publikoak egiten duen lan itzela, ez zuela jasotzen merezi duen errekonozimendua, eta bazela garaia egoera hori aldatzeko. Horixe izan zen gure helburu nagusia, eskola publikoa ezagutzera ematea, haren presentzia indartzea. Eta, bide batez, ikastetxeen arteko sarea sortzen hastea, Erretereriako artekoa ez ezik, baita eskualdekoen artekoa ere.

Hala bada, ilusioz beteta hartu genuen lekukoa Lekeition, 2018ko ekainaren 3an, eta gogor ekin genion lanari. Uztailaren 19an, prentsaurreko bat egin genuen udal ordezkariekin batera, jaiaren berri emateko,



eta han aurkeztu genituen aukeratutako logoa eta leloa.

Erretererian hain garrantzitsua izandako industrializazioari erreferentzia egin nahi izan genion, faktore horren ondorioz jatorri askotako jendea bildu baitu Erretereriak bere historian zehar, eta gaur egun ere zenbait herrialdeetatik iristen baita jendea gurera.

▲ 2018ko ekainaren 3a, Lekeition lekukoa hartzen.

Herri mailako errealitate hori, aniztasun hori, islatuta dago eskola publikoan, jatorri geografiko, sozio-ekonomiko eta kultural desberdineko ikasleak biltzen baitira bertan. Logoa pertsonaz osatutako engranaje bat zen, eta industrializazioa ez ezik, elkarlana ere irudikatzen zuen, engranajeetan pieza oro beharrezkoa den moduan eskolan ere guztiok baikara beharrezkoak. Leloak zera adierazi nahi zuen, euskal eskola publikoa osatzen dugun familiak asko eta era askotakoak gara.



makina bat
taupada
euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2
errenteria

Helburuen artean aipatu dugu saretzearena. Erabaki genuen herriko ikastetxe publiko guztietara zabalduko genuela jaia antolatzeke laguntza eskaera, eta Oiartzun eta Lezoko herri ikastetxeetara ere hedatu genuen deia, baita erantzuna jaso ere, ezin hobea, gainera. Eta elkarlanean aritu ginen ikasturte osoan zehar.

Ikasturte osoan zehar diogu, jaia ez zelako mugatu ekainaren 2ra. Irailetik ekainera bitarte hainbat jarduera antolatu genituen: irailean, mural bat margotu genuen Atlantikaldian; urrian, Oarsoaldeko ikastetxe publikoen arteko topaketa egin genuen Oiartzunen; azaroan, laranjak banatzeko postua jarri genuen Behobia-Donostia lasterketan; abenduan, gogoeta saio bat egin genuen eskola publikoko ikasle ohi, irakasle eta gurasoekin; otsailean, ikuskizun berezi bat antolatu genuen matrikulazio kanpainarako; martxoan, altxorraren bila jolasa prestatu genuen Lezon, eta ikastetxe guztien artean elkarlanean aniztasunaren jai arrakastatsua antolatu genuen Errenterian; otsailetik apirilera bitarte buru-belarri aritu ginen bideklipa grabatzen eta prestatzen. Denda ibiltariarekin ere batera eta bestera ibili ginen, eta hainbat kirol talderen babesa ere lortu genuen: Bera Bera, GBC, IDK, Reala eta Athletic.

Aipatutako jarduera horietatik, badira bi emaitza iraunkorra eman dutenak: abenduaren 1ean egindako kafe-tertulia eta jaiko abestiaren bideklipa. Abenduko topaketa oso-oso berezia izan zen.

Merkatuzarren bildu ginen, eskola publikoak herrian izandako bilakaerari buruz gogoeta egiteko, eta ondorio benetan interesgarriak atera ziren bilera hartatik. Saioa grabatu, eta bideo batean jaso genituen egun

hartako ekarpenetako batzuk. Gure ustez, bideoan oso ondo azalduta dago zer ibilbide egin duen eskola publikoak eta zer erronka dituen etorkizunean.

Jaiko abestiaren bideklipari dagokionez, esperientzia benetan polita izan zen guretzat. Lekeition hartu genuen lekukoa, eta Lekeitiotik etorri zen gugana Iñigito Txapelpunk, ibaian barrena, Hibaikako arraunlarien laguntzaz. Paper fabrikak, Errenteria industrialetik zutik dirauen lantegi ikonikoak, presentzia nabarmena



Errenteriako jaiaren logoa eta leloa.



Ikasturtean zehar egindako hainbat ekintza.





izan zuen bideoklipean, bertan grabatu baikenuen musikariekin. Bertatik ateratako bistekin, argi erakutsi ahal izan genuen gure herriak azken urteotan izan duen aldaketa. Bestalde, lehendik aipatu ditugun ikastetxe guztietara bidali genuen bideoklipean parte hartzeko gonbidapena, eta, egia esan, erantzuna ona izan zen, eta familia eta irakasle ugari agertu ziren grabaketa egunean.

Xenpelarren bertso ezagunak moldatuta, abestiaren amaierak jaira etortzera animatzen zuen jendea, eta askok onartu zuten gonbidapena. Lehenengoak jai egunaren bezperan iritsi ziren herrira; izan ere, familia asko autokarabanan edo furgonetan asteburu pasa mugitzen direla kontuan hartuta, horientzako gune bat egokitu genuen, eta zenbait jarduera antolatu genituen larunbat arratsalderako, motorrak berotzen joateko. Haurrentzako jolasak izan ziren Gamon Zumardian, eta Nerabe taldearen kontzertua, Herriko Plazan. Horrez gainera, *Sirena hotsen atzetik* izeneko bisita gidatua egiteko aukera ere izan zen, Errenteriarren historia industrialia ezagutu ahal izateko.

Eta beroketaren atzetik, azkenean iritsi zen egun handia. Eguzkia izan zen gure artera agertzen lehena, eta haren atzetik iritsi ziren milaka lagun. Irekiera ekitaldi ofizialak eman zion hasiera festari, eta bertan izan ziren hainbat erakundetako ordezkariak, hala nola Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua eta Julen Mendoza Errenteriako alkatea, zeinak hausnarketa eta batasuna eskatu baitzituen hitzaldi argigarri bezain hunkigarri batean. Ekitaldia amaitzeko, Lekeition hartutako lekukoa hurrengoie pasatzea besterik ez zitzaigun gelditzen, eta

makina bat taupada

Musika: Jon Figueroa
Letra: Oneka Oliveri

Euskal Eskola Publikoak
Errenterian bota du aingura.
Denontzat zabalik dago,
Euskal Herritik mundura.

Hezkuntza aukera paregabea,
etorkizunez dago betea.
Zu eta ni engranajea,
jar dezagun martxan katea.

Makina bat taupadek
ematen diote bizia.
Euskal Eskola Publikoa
gure geroaren hazia.

Gure herriko kaleetako
argazki baten tankeran,
jatorri eta izaera ugaritako
lagunak gaude ikasgelan.

Euskalduna eta anitza,
horrelakoa baita bizitza.
Hezkuntza gizartearen giltza,
entzun dezatela gure hitza.

Makina bat taupadek
ematen diote bizia.
Euskal Eskola Publikoa
gure geroaren hazia.

Elkarlanean bagoaz aurrera,
denek izan dezagun aukera bera.
Zu ere gurekin batzen al zera?
Bultza dezagun denok batera!

Ekainaren bian dugu zita,
prestatu eta zatoz ti-ta!
Errenterian bizi gara eta,
egin zaiguzu bisita!





Garazi Pascual ekilibrista, kable gainean aurrekoa dantzatzen.



horretaraxe etorri ziren Bastidako eskolako kideak. Une oso berezia izan zen. Garazi Pascual ekilibristak itxi zuen aurkezpena, kable gainean aurrekoa dantzatuta, Zaria Koru Eskolako ahotsak lagun zituela.

Aurkezpenak eginda, jai giroan murgiltzeko ordua iritsi zen. Sei gune izan genituen, eta jarduera ugari eta era askotakoak. Txikienek Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten, baita Ene Kantak taldearen saioaz eta Demode Quartet laukotearen *Epa txiki* ikuskizunaz ere. Koskorragoek ere izan zuten zer ikusi, Apaxi ipuin kontalariaren saioa, zeinu hizkuntzako interprete eta guzti, eta Roberto White argentinar artistaren txotxongilo ikuskizuna, besteak beste. Baloreak taldeak ekarritako proiektu interaktibo batean parte hartu ahal izan zuten, halaber. Emanaldiak ikustez gainera, puzgarriak, jolas kooperatiboak, zenbait elkarte antolatutako tailerrak, perkusio tailerra eta beste hainbat ekintza egiteko aukera ere izan zuten.

Gazteentzako gunea Ondartxon kokatuta egon zen. Bertan, arraunketa jarduerak egin ahal izan zituzten Hibaika Arraun Elkartearen eskutik. Skate tailer eta erakustaldiak, DJ emanaldiek, kale dantzako ikastaroak, kale animazioak eta grafiti erakustaldi batek osatu zuten 6. guneko egitaraua. Aitor eta Nextor Otaño aita-seekek sortutako grafiti zoragarria ekainaren Zaren oroigarri izango da luzaroan.

Musikarik ere ez zen falta izan jaian. eMe eta Izaki Gardenak taldeek jende mordo bildu zuten Herriko Plazan, eta Nogen taldeak kontzertu arrakastatsua eskaini zuen Lehendakari Agirre plazan. Horrez gainera, hainbat musika ikuskizun ibiltarik herriko kaleak alaitu zituzten egun osoan zehar: Errenteriako Banda, Errenteria Musikaleko trikitilari eta dantzariak, EH 11 Kolore, Euskorleans, Rockalean, Reperkusion Feminista...



Herriko Plaza jendez gainezka, Ene Kantak taldearen ikuskizunean.



Jatekoari dagokionez, Gamon Zumardian mahaiak eta aulkiak jarri genituen itzalpean, bertaratutako familiek non bazkaldua izan zezaten. Bertan, etxetik ekarritakoa jateko aukera zuten, baina, era berean, nahi zutenek plazan bertan jarritako hainbat janari postutan eros zezaketen bazkaria. Postu horien artean, bi nabarmendu nahi genituzke: Zaporeak proiektuko kideena eta Oiartzungo Elizalde Herri Eskolako gurasoena. Izan ere, bi postu horietan ateratako diru guztia Zaporeak egitasmoari laguntzera bideratu zen.



Jendea Rockalean ikuskizunaz gozatzen.

Jai eguneko alderdi azpimarragarrietako bat boluntarioen erantzun ezin hobea izan zen. Goiz-goizetik hasi ziren lanean, eta jaia amaitu ostean dena txukun-txukun utzi arte aritu ziren. Argi daukagu festa hain ondo atera izana haiei zor diegula, hein handi batean. Eskerrik asko guztiei! Eta eskerrak ematen hasita, ezin dugu Udala ahaztu. Eskerrik asko, bihotzez, jaia antolatu behar genuela jakinarazi genizuenetik agertutako babesagatik eta prozesu osoan zehar bidelagun izateagatik.

Eskola Publikoaren Jaia Oarsoaldean lehenengoz antolatu izanak? Bada, gure balorazioa oso-oso positiboa da. Jaia bera zoragarria izan zen, inongo gorabeherarik gabea, baina gure lorpenak askoz haratago doaz. Oarsoaldeko ikastetxe publikoen artean sarea sortzen hastea lortu dugu, eta elkarlan horrek jarraipena izango du. Horrez gainera, ezagutzera eman dugu zer den gaur egun eskola publikoa, eta uste dugu argiago geratu dela ikaragarritzko lana egiten duela kohesioaren alde, euskararen alde, aukera berdintasunaren alde... Eta azkenik, ikasturtea leher eginda amaitu bagenuen ere, aurrerantzean lanean jarraitzeko indarberrituta atera gara.

Eta ekainaren Zaren ondoren zer? Zer balorazio egin dugu? Zer ekarri digu Euskal



Ondartxon sortutako grafiti ikusgarria.

Maite Brandariz

LA VIDA EN LOS MÁRGENES DE OTRAS VIDAS

Iñigo Legorburu Arregi

X. Mariasun Landa Sariak, 2020.
Emakumezkoei begiradarik onena saria.

Maite Brandariz Barral (Donostia, 1959) es una mujer errenteriarra que reside desde 1986-87 en el municipio, y actualmente trabaja en la asociación Arrats, que atiende a personas en peligro de exclusión social donde la propia Maite ejerce labores de acompañamiento hacia las personas que componen este colectivo.

Maite nació dentro de una familia obrera de Egia compuesta por cuatro hermanas, donde ella era la mayor. Tanto su madre como su padre migraron a esta zona, provenientes de una pequeña aldea rural gallega, por lo que señala que *“yo siempre digo que pude nacer en cualquier parte del mundo”*. Su padre, encofrador de profesión, falleció a los 33 años de edad. A partir de ese momento, su madre se tuvo que hacer cargo de las cuatro hijas a la vez que ejercía su profesión de modista, por lo que la pequeña Maite, al ser la mayor entre las hermanas, tuvo que madurar a marchas forzadas para poder aportar y sacar adelante la familia, ayudando a su madre. A los siete años, recuerda ser *“una buena estudiante, muy aplicada y que sacaba muy buenas notas en el colegio”*. Años después obtendría el título de Magisterio, que nunca ejercería dentro de las aulas... aunque quizá sí en otros ámbitos de la vida.

Se fue de casa a los 16 años y convivió con un joven donostiarra toxicómano de buena familia en un piso compartido en la Parte Vie-

ja, donde pronto se torcería su vida. Mirando hacia atrás, Maite es consciente de que *“la carga familiar que adquirí en mi infancia, me hizo creer que aquel tipo de vida era la que*





▲
Maite, de pequeña (vestida de verde) con sus primas, en la aldea gallega.

verdaderamente deseaba". Un tipo de vida lleno de desenfreno, excesos y ritmos vertiginosos, "con la idea de querer vivir el momento, bajo un falso manto que yo identifiqué erróneamente como de libertad".

Se queda embarazada y a los 19 años se casa con su novio pero antes de que su niño cumpla un año, se separa de su marido. Traumatizada por la situación, Maite comienza a consumir y se sumerge en un infierno que dura nueve años, "los peores años de mi vida, sin ninguna duda", donde sigue consumiendo a la vez que saca adelante a su hijo. Para entonces, ya vivía intermitentemente en habitaciones de alquiler en Errenteria.

Maite toca fondo y entra con bastantes dudas en Proyecto Hombre con la impresión de que "esto no va conmigo. Estaré dos o tres meses y saldré enseguida limpia de aquí para seguir con mi vida". En ese momento, vuelve a casa de su progenitora y un día, desde la terraza de su madre vislumbra un precioso amanecer que le hace replantearse todo lo

vivido hasta entonces y llega a la conclusión de que "esto representa la vida que quiero llevar, llena de luz y de belleza".

Maite sonríe al recordar aquella etapa de su vida cuando apunta que "obviamente, mi estancia en Proyecto Hombre no se limitó a los dos meses que tenía pensado pero sí que tengo un pequeño record en mi haber porque estuve algo menos de dos años, cuando la media de estancia nunca bajaba de los tres años". Su fuerte personalidad, la motivación y las agallas, obraron el pequeño milagro.

Con toda esa experiencia acumulada, comienza a trabajar en Gureak de Beriyo con sordomudas, donde estuvo un año. Más tarde, mientras cobra la prestación por desempleo, se ofrece para trabajar en Proyecto Hombre y casualmente, ante la baja de la persona que llevaba el piso de Egia; ella se hace con el puesto. Después de ese trabajo, participa en diferentes fases de Proyecto Hombre para acabar recalando en otro piso del Comité Anti-Sida, en el que ejercerá durante nueve años.

Entretanto, la vida y la sociedad van evolucionando y se da cuenta que ante los nuevos retos profesionales, tiene que seguir formándose por lo que con casi 40 años, se matricula en la universidad para estudiar Educación Social. A día de hoy, confiesa que "no me explico cómo pude obtener el título, porque trabajaba los siete días de la semana y además, tenía un hijo al que sacar adelante".

GAZTELUTXO: 7 AÑOS Y UNA VIDA

Con Maite ya afincada desde hace mucho tiempo en el barrio de las Agustinas, en el año 2007 se abre el centro de acogida de Gaztelutxo, donde entre semana ocupa el puesto de educadora y los fines de semana de trabajadora social. Sólo tiene buenas palabras para su estancia allí: "El edificio acoge a gente en exclusión grave, siete días cada tres meses como máximo. Su reducido tamaño, su arquitectura amable donde reina la made-

ra y la tranquilidad que transmite, hace que las usuarias tengan asimilado que es un lugar donde refugiarse de las inclemencias de la calle". Su trabajo consistía en acoger, hablar y comunicarse con las que pernoctaban y como dice ella, "estar con la oreja puesta, ya que muchas veces nuestro trabajo consiste en detectar alguna frase o comentario fuera de tono o de contexto, que da pie a actuar preventivamente para así, evitar males mayores que se dan con mayor asiduidad en centros de más capacidad".

Muchas anécdotas pueblan sus recuerdos, como aquellos jóvenes amigos de Ghana con los que entabló algo más que amistad y entre carcajadas reconoce que "actualmente, son mis hijos adoptivos y mantenemos mucho contacto. Cuando vinieron, no sabían ni castellano pero ya llevan más de 10 años integrados aquí, con su propio trabajo y con la esperanza de traer a su familia a esta tierra".

Las tragedias también copan su espacio en los recuerdos, como aquel señor siempre vestido de un blanco impoluto y afable en sus modales que vivía debajo de un puente, y que un día se acercó a Gaztelutxo, para después contactar con la asociación Arrats. Maite señala que "a partir de ahí, su vida cambió radicalmente a mejor y comenzó a dar charlas sobre sensibilización social en los colegios, entre ellos Don Bosco. Pero hace unos años, apareció muerto en una casa ocupada en Andoain, donde dio cobijo a otra persona de la calle y acabó asesinado por ella".

"LA PERSONA DECIDE"

Después de Gaztelutxo, en el 2014 Maite comienza en Arrats en el "Programa de acompañamiento especializado", que lo gestiona la Diputación y tiene entidad jurídica propia. Un programa, donde la palabra cobra mucha importancia "y acabamos hablando mucho con la otra persona, que es la mejor forma de conocerla. También es verdad que se filosofa mucho sobre la vida y la muerte, porque en



los casos de las personas más vulnerables, la línea que separa ambas es muy fina".

Maite resume en una breve frase todo lo aprendido en este largo periplo: "La persona decide". Pero en la decisión de la persona influye la personalidad de cada una y el entorno que le rodea. De hecho, "esta sociedad tan materialista e individualista, hace mella en los colectivos más desfavorecidos. Antes se vivía más en colectivo y ese calor humano, en gran medida, se está perdiendo". No obstante, constata cambios como que "las instituciones en general, están más concienciadas y en eso hemos avanzado, ya que la integración de las personas no puede depender del voluntarismo o del apoyo exclusivo de la familia".

▲ Maite, visitando Gaztelutxo en la actualidad.

Maite, en el centro de ambas fotos, durante dos salidas de grupos.



EN EL SIGLO XXI, SOBREVIVEN LOS 80

Maite aún atiende a muchas errenteriaras que fueron víctimas de los duros años 80, donde la droga penetró fuertemente en las clases obreras. Puntualiza que *“ellos y ellas, pero también sus descendientes más cercanas siguen viniendo a nuestra asociación. Las primeras, porque vivieron una época muy trágica mientras que las segundas, han visto y han reproducido escenas y costumbres que los han abocado a la exclusión”*.

Para acabar, Maite se sincera sobre su trabajo diciendo que *“es un trabajo que quema pero que en el fondo, compensa”*. Esta mujer apasionada del contacto social, se siente gratamente recompensada cuando la gente con la que ha tratado, se le acerca y *“me co-*

men a besos y abrazos, mientras me cuentan que han rehecho su vida y que están trabajando. Es algo que me llega al corazón y que me hace reafirmarme en la opción de vida que escogí”.

Mientras tanto, Maite prosigue en su empeño de dejarnos un mundo algo mejor. Apasionada de los viajes, apunta que *“en este oficio es necesario desconectar para volver con fuerzas al trabajo”*. Sus viajes, pueden ser internacionales o se pueden limitar *“a dar un paseo por la Fandería, uno de mis recorridos favoritos”*.

Porque, tanto a ella como a la sociedad, nos queda aún un largo camino por recorrer en el ámbito de la exclusión social.

Maite, se siente gratamente recompensada cuando la gente con la que ha tratado, se le acerca y “me comen a besos y abrazos, mientras me cuentan que han rehecho su vida y que están trabajando.

Hibaika

2019:

ETE liga irabazi genueneko

Iñigo Legorburu Arregi

Apirila amaitzen ari den honetan, dena da ezjakintasuna gure gizartean eta munduan. Konfinamendu gogor batean murgilduta jarraitzen dugu birusagatik eta etorkizunak zer ekarriko duen zantzurik txikiena ere ez daukagu oraintxe bertan. Zuk hau irakurtzen duzunerako, uztailaren erdikaldea izango da eta, ordurako, jakingo duzu bizitzak nola egin duen aurrera eta, beste zenbait gauzaren artean, udan arraun denboraldirik egongo den ala ez.

Bitartean, Hibaikako neskek euren etxeetan entrenatzen jarraitzen dute inoizko denboraldirik gogorrena prestatzeko asmoz. Zergatik gogorrena? Inork ez dakienez zer pasako den, burua indartsu mantentzea zaila gertatzen delako halako egoera berezietan.

Guk atzera begiratzeko baliatu dugu egoera, oroitzapenekin goatzeko asmoz, izan ere 2019ko udan, beste behin denboraldi historiko bat gauzatu zuelako emakumezkoen Madalen traineruak, bandera ugari eta ETE liga irabaziz, besteak beste.

Euren etxeetatik telematikoki erantzun dituzten galderen bidez, Amaya Gezala, Eli Pescador, Nerea Orena, Maddi Iriarte, Maddi Insausti eta Zuriñe Alberdiren hitzekin collage bat marraztu dugu, bizitzaren puzzlea etorkizunak osatzen lagunduko digula itxaroten dugun bitartean.

2018 udako ETE ligaren estreineko urtean bigarren lekuan geratu ostean Donostiarra indartsuaren atzetik, denboraldi hasiera markatzen duen urriak, aldaketa garrantzitsu

◀ Pasaiaiko uretan, garaipena sinbolizatzen duen arraunak altxaz.





▲ Urte zaharretako entrenamenduaren ostean, klubeko neska-mutilak batera.

bat zekarren Ondartxoko egoitzetara: Amaya Gezala hondarribiarrak hartzen zuen Gorka Barbadoren testigua entrenatzaile karguan, bere arraunlari lanarekin bateratuz. Horrela, urtetan pilotutako esperientzia eta taldearen barne ezagutza bikain uztartzen zituen Gezala, arduratuko zen talde beltza gidatzeaz.

Erronka hartzerako orduan, Gezalaren kezkek *taldearen kudeaketa nahi bezain ongi egiteko gai izango ote nintzen eta kirol alorrean, gure bertsiorik onena ematen jakingo ote genuenarenak* ziren. Gerora argitu zen, bi alor horietan gehi beste zenbait alor gehiagotan, ederki asko asmatu zuela hondarribiarrak.

Denboraldi hasiera eta neguak, gogorak izaten dira arraun elkarrean. Arraunlari bakoitzak bere urtea planifikatu eta aztertu behar izaten du denboraldiari heldu aurretik, irailerarte irauten du eta. Arnasa sakon hartu, norberak bere barrura begiratu eta bakoitzak zen nahi duen eta helburuak enfokatzeko garaiak izaten dira urria-azaroa zati hori.

Hori izan zen 37 urteko Nerea Orenaren kasua. Urtebetez arraunik egin gabe pasa eta iazko denboraldian delegatu lanak egin ostean, berriro arraun egitera bueltatzeko erabakia hartu zuen. Itzuleraren motiboa azaltzeko orduan, hainbat faktore aipatzen ditu Orenak: *Izugarri disfrutatu nuen taldearekin aurreko udan, gogoa eta grina transmititu zidaten. Bestalde, egun batean "Do what makes you happy" irakurri nuen agenda batean eta nik*

arraunarekin disfrutatzen nuela pentsatu nuen. Gerora horrelako esaldiak ikusten nituen behin eta berriro, eta ideia bera etortzen zitzaidan burura "zergatik uko egin arraunari?" Gainera Eli eta Amayak asko disfrutatu zutela eta horrenbesteko presiorik gabe, arraunaz gozatzeraz animatu ninduten. Bizitza, egunerokoa alaitzen diguten milaka gauzez eginda aurkitzen da. Eta gauza horietako bati uko egitea absurdoa zela ikusten nuen, are eta gehiago katilu eta ajendetan sarri irakurtzen nuen "Do what makes you happy" esaldiarekin guztiz bat egiten dudalako. Nire kasuan, arraunak beste bizitzako hainbat gauzekin batera, nire poztasuna borobilagoa izaten laguntzen du; osagarri bat bezala ikusten dudalako. Gainera, tartean nire belaunaldikoak diren Eli eta Amayaren konplizitatea baneukan eta gazteak, oso gogotsu ikusten nituen.

Maddi Iriarte eta Maddi Insausti gazteak, beste egoera batetik zetozen. Iriarte, aurreko urtean ETE ligan estreinekoz aritu ostean eta behin ligaren barrunbeak, *denborak eta funtzionamenduak hobeto barneratuta, seguruago bezala aritzeko gogoz igo nintzen. Insausti ordea, estrainekoz aritzekoa zen baina 12-13 urtetatik bateletan-eta, batera aritu naizen adiskide taldearen babesarekin, esperientzia bizitzeko gogoz zetorren. Biek hala biek, argi adierazten dute *belaunaldi ezberdinen arteko katebegi bezala ikusten dugu gure burua. Klubean, erreferentzia batzuekin jardun gara txikitatik eta orain, haiekin arraun egitea egokitzen zaigu.**

Belaunaldi arteko uztarketa bikaina da Hibaikaren ezaugarrietako bat, urtez urte arrakasta eta titulu ugari lortzera eraman dituen. Tartean, 17-38 urteen artean mugitzen diren arraunlariak daude. Baina taldearen beste berezitasun bat, Zuriñe Alberdi patroiak argitzen duen bezala *burugogorkeriarena liteke, ongi ulertutako burugogorkeriarena. Oso talde lehiakorra gara eta ez dugu sekula ere estropada bat galdutzat ematen.*

Xelebrekerien artean, Eli Pescadorrek bere ahizpa Anerekin arraun egin zueneko dago. Urte askoz uretan arerio izandakoarekin (Ane San Juaneko *Bateleren* ziklorik ederrenean jardun zen), tosta partekatzeko aukera izan zuen 2019ko udan eta ordurarte zalantzarik bazuen, *ahizpa, oso lehiakide gogorra eta borrokalari sutsua zela* ikusteko parada izan zuen.

MOTORRAK BEROTZEN

Denboraldi aurrea lasaitasunez eta etxeko lanak egiteko baliatu zituzten neskek; arraunean, banderak udan *eskuratu* egiten baitira baina irabazi, neguko egun hotz eta bakartietan irabazten baitira. Pescadorren hitzetan, *astean zehar alor fisikoa lantzen genuen eta asteburuetan, trainerua uretara ateratzeko aukera izan genuen ia hutsik egin gabe. Dinamika ederra da hori negua hobeto pasa arazten laguntzen duena.*

Urtarriletik Aste Santuko oporretarako tarte horretan, batelak eta traineru jeitsierak tartekatzen joan ziren. Gezala entrenatzailearentzat *bateletako emaitzak bikainak izan ziren, seniorretan Gipuzkoako liga eta txapelketa irabazi genituen eta jubenilekin, Euskadiko txapelketan gailendu ginen. Traineru jaitsieretan ere, emaitza txukunak izan genituen eta traineruan zentratzeko, trainerillan denboraldia sakrifikatzea erabaki genuen.*

LIGA HISTORIKO BATEN LEHEN NOTAK

Denboraldia hasteko tenorea iritsi zen ekainean, eta nagusitasunez hasi zuen liga Madalen untiak, hasierako lau estropadak irabaziz oso tarte gutxirekin bada ere. Gezalaren hitzetan *horrek puntu pila bat eta denbora irabazteko aukera eman zigun, zenbait ñabardura hobetzeko marjina.* Uztailean, Portugaleteko estropadarekin batera krisialdi txiki bat etorri zen. Bertako ibaiaren berezitasunak eta momentuko urduritasunak medio, urteko emaitzik txarrena lortu zuten baina *azkar ikasi genuen*



eta handik aurrera, hirugarren postutik ez ginen jeitsi denboraldi osoan zehar. Hau da, egunik txarretan ere duin mantentzen jakin izan genuen, sari potoloa erregulartasunak ekartzen baitu.

Uztaileko emaitza ez hain on haiek, *ETE ligako goiko postuetan dagoen maila bikainari egotzi dakioke* Orenaren esanetan, *bost talde ezberdinek bandera bat edo gehiago irabazi zutelako denboraldi berean. Oso liga ikusgarria izan zen konpetentzia mailari dagokionean, baita ere. Zer ikusirik ez beraz, Euskotren ligan gailendu zen hori kolore ia bakarreko denboraldiarekin.*

Konpetentziaz gainera, Gezalak dio *taldearen gaztetasunak ere indargune eta ahulgune gisara jokatu zuen momentu on eta ez hain on horietan, izan ere gazteen presentziak indarra eta ilusioa dakarren bezala, zenbait momentu klabeetan esperientzia pixka bat falta izaten da.* Baina horiek, urteekin kudeatzen ikasten diren ajeak izaten dira.

Abuztuan, topera jardun ziren hibaikarrak eta liga oso lehiatu baten ostean, 2 puntuko aldeaz iritsi ziren ligako azken asteburura, Bilboko eta Errenteriako estropadetara, Zumaia zutelarik arerio nagusia liga irabazteko lehian baina beste areroren bat,



